


# ttiipi-ttapa

294. zenbakia • 2001ko urtarrilak 25 • XXI. urtea

SENPEREKO SAINT CHRISTOPHE LIZEOA

## Ingurumena zaintzeko ikasleak prestatzen

Duela 30 urte sortu zen Senperen Saint Christophe laborantza lizeoa. Orduan, nekazaritza eta abeltzaintza ikasketak eskaintzen zituen eta batez ere Senpere eta auzo herrietako ikasleak etortzen ziren. Duela hogeita urte, baserriaren indarra bezalaxe, ikasle kopurua ere tikitzen ari zela ikusiz, bihurtu haundi bat hartu zuen ikastetxeak. Ingurumenari lotutako ikasketak eskaintzen hasi zen, bi maila nagusitan: bat urari atxikia, erreka teknikari eta arrain hazkuntza; eta bertzea ihizi zaingoaren ofizioaren gai-

nean. Gaur egun Frantzia osotik etortzen dira ikasleak —erdiak baino gehiago Akitaniatik kanpokoak— eta ikasturte honetan 220 dituzte. Hegoaldeko ikasleentzat ere atea zabalik daude, Albert Zubillaga zuzendariak erran digunez.  4.5



Urari lotutako ikasketak egiten dituzten ikasleek praktikoak Senperen berean egiten dituzte, INRAk duen arrain haztegian. Amorrainak arrautzetik hasi eta nola handitzen den ikusten dute.



### 3 Elkarriketa: Mikel ALBISU

Nafarroako Albergeak biltzen dituen Lagun-Artea elkarteko lehendakaria da Beintzako Ostaturko nagusia. «Albergeei azken kategoriako goxotasunik gabeko barrakoiaren irudia kentzen ari gara, zerbitzu osagarri interesgarriak eskaintzen ditugulako».

### 6 Gaurkotasuneko Gaia: Lehendabiziko analisiak Nafarroako behiei

Orain bi aste hasi dira Nafarroako behien analisiak egiten. Oraindik gaitza duen animalirik harriaratu ez badute ere «ez litzatekeela batera harriztekoa izanen» diote hemengo abeltzainek.

### 25 Kirola: Sisha Pangma

8.046 metroko mendia igaiten saiatuko dira udaberriaren Berako Pikabea anaiak, Jabier Zubieta eta Sabino Korta eta Zestoako Andoni Zulaika. Gasherbrumen ondotik, bigarren zortzi milakoa izanen da Berako Agerra taldeko mendizaleentzat.

**TTIPI TXARTELA:** Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.





Sarrera BERATik da  
Alkaiagako industrialdean  
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4  
31789 LESAKA  
Tfnoa. 948 630 537  
Fax. 948 631 443



**4.000 m<sup>2</sup>ko  
erakusketa  
mobleak ikusteko**  
Larunbat arratsaldetan irekia



**Bidali TTIPI-TTAPA  
herritik kanpo  
bizi diren lagun  
edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu  
behar dira.  
Eskatu informazioa.

**(+34) 948 631 188**

## DATUAK.....

❖ Beintzako ostatuko nagusia eta iaz sortutako Lagun-Artea Nafarroako Albergeen Elkarteko lehendakaria da Mikel Albisu.

❖ Nafarroako hamar albergeak biltzen dira elkartean. Tartean Arantzako Aterpe, Beintzako Ostatu-albergea, Lesakako Matxinbeltzenea eta Narbarteko Telleria daude.

❖ Nafarroan 800 lagunei harrera eskaintzen ahal diete eta eskualdean 300i: Aterpen 130 –Nafarroako handiena–, Tellerian 80, Matxinbeltzenez 60 eta Beintzan 30 –ttikiena– sartzen dira.

TESTUA ETA ARGAZKIA:  
AITOR AROTZENA

✎ **Mikel ALBISU** *Lagun-Artea Nafarroako Alberge Elkarteko lehendakaria*

## "Albergeak leku goxoak direla erakusten ari gara"

### NOLA SORTU ZEN NAFARROAKO ALBERGEAK ELKARTZEKO PREMIA?

Nafarroako Gobernua albergendako araudia prestatzen hasi zenean pentsatu genuen elkartuta joan behar genuela. Araudi horren prestaketan parte hartzeko modua izan dugu, nahiz eta agian ez denen gustokoa izan. Hasieran Turismo Departamenduak uste zuen *motxilako* turismoak ez duela sosik ematen eta hori ez zela bultzatu behar. Guk erantzuten genuen turismoa edo aisialdia denon eskubidea dela eta jendeak badu kanpina edo hotela edo etxe rurala edo albergea aukeratzeko eskubidea. Nafarroan 800 lagunendako harrera eskaintzen dugu albergeok eta hori arautu beharra zegoen. Legea atera arte egoera berezian geunden, egoera alegalean: ez ginen legez kanpo, legerik ez zegoelako. Legeak ez gintuen debekatzen baina ez gintuen arautzen ere.

### ZEIN EZBERDINTASUN DAUDE ALBERGE BAT ETA HOTEL EDO LANDA ETXE BATEN ARTEAN?

Albergeak, berez, logela konpartituak dituen lekua da, nolabait taldetan joatekoa. Bereizgarri horregatik eman genion elkarteari Lagun-Artea izena... ko-



«Motxilako turismoak ez duela dirurik uzten uste zuen Nafarroako Gobernuak».

adrilan edo familiarekin joateko leku egokiak direlako. Horrek ez du erran nahi bi lagunendako logelak ez ditugunik. Horren arabera ere bi kategorietan banatuak gaude. Lehen mailakoak bi lagunendako logela batzuk eskaintzen dituzten aterpeak dira. Sukalde eta komedore zerbitzua ere badute, horrek bereizten ditu etxe ruraletatik.

► *“Orain arte mendiko refugioekin nahasten gintuzten. Horregatik aterpe baino alberge hitza nahiago dugu, gurea ez baita lotarako lekua soilik.”*

Albergetan arduradun bat dago, zerbitzu horiek eskaintzen dituena. Albergea ez da bakarrik lo egiteko lekua, otordua eta bere inguruan bertze aktibidadeak edo ateraldiak eskaintzen dituen lekua baizik. Bada zerbitzu osagarri interesgarri bat. Orain, albergeei azken kategoriako eta goxotasunik gabeko barrakoiak irudi hori kentzen ari gara. Legea exigentea da alde horretatik.

### ZEIN DIRA URTE SASOIRIK ONENAK ALBERGEENDAKO?

Turismoa egiteko

beste aukera bat da. Kirol eta zerbitzu enpresentzat oinarri garrantzitsua dira albergeak, harrera haundikoak direlako eta urte osoan zabalik egoten ahal direlako, hori da kanpinerkin duten diferentzia. Dena den, denboraldi altua udaberria izaten da guretzat, eskolekin eta lan haundia egiten dugulako eta uda. Udazkenean izaten diren zubi eta bestekin ere, erdi mailako denboraldia dugu. Pirinio aldean dauden albergeentzat negua izaten da denboraldi altua.

**Duela hogeita hamar urte sortuzen Senperen Saint Christophe laborantza lizeoa. Garai hartan, nekazaritza eta abeltzaintza ikasketak eskaintzen zizkien Senpere eta auzo herrietako gazteei, batez ere. Baina Iparraldean baserriak indarra galdu zuten neurrian ikasle kopurua ere murrizten joan zen. Duela hogeitau urte ikastetxeari bertze norabide bat ematea deliberatu zuten, ingurumenarekin zerikusia zuten ikasketak landuz, bi maila nagusitan: bat urari atxikia, erreka teknikari eta arrain hazkuntza eta bertzea ihizi zaingoaren ofizioaren gainean. Albert Zubillaga zuzendariak erran digunez, lizeoan erakasten denak ez du gaur laborantza tradizionalarekin ikusteko haundirik. Pario bat egin zuten orduan eta apostu hori irabazi dutela erraten ahal da: duela hogeitau urte 80 ikasle zituzten bitartean, gaur egun 220 dituzte.**

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA



## SENPEREKO SAINT CHRISTOPHE LIZEOA

# Ingurumena zaintzeko ikasleak prestatzen

**F**rantzia osoan ingurumen ikasketak eskaintzen dituzten sei lizeo bertzerik ez daukela kontuan hartuz, alde guzietarik etortzen dira ikasleak Saint Christophe lizeora, Albert Zubillagak erran digunaren arabera: «Hemen inguruko ikasle gutti da. Departamendukoak ehunentzat hogeita hamar izanen dira, Akitaniakoak erdiak edo

eta bertze erdiak Frantzia gutitik heldu direnak». Hegoaldeko ikasleak ere izan dituzte berriki arte eta zuzendariak atseginez ikusiko lituzke orain ere lizeoan. Baina, frantsesa jakin behar da eta Hegoaldean, ingelesak indarra hartu duen neurrian, frantsesa ikasten duten neska-mutikoak gero eta guttiago dira. Muga hori gaindituta, Saint Christopheko atak zabalik dituzte Senperen: «Guretzat bidea irekia litaike. Aunitz urtez izan ditugu

Hegoaldeko bakar batzuk, bi-hiru, aurten ez dugu batto ere. Nik nahi nituzke Hegoaldeko ikasle batzuk. Ez dakit nik lengoairen problema ote den. Hegoaldean ez du gehiago nehorik frantsesik egin nahi. Denek ingelesa ikasten dute, frantsesa guti, pena da. Hemen bereko euskaldunak ere guti ditugu, bakar batzuk bakarrik».

Ikasle gazteenek hamasei urte dituzte eta zaharrenek hogeita bizpahiru urte, goi mai-

la-ko teknikari kurtsoa egiten dutenak. Klaseak ematen hogeitau erakasle ari dira. Zubillagak erran digunez, formakuntzak hiru mailetan egiten dira: «Lehena, Hegoaldeko Lanbide Heziketa mailakoa, bigarrena ba-





Albert ZUBILLAGA *Saint Christophe Lizeoko zuzendaria*

## «Klase praktikoetan, arrainak ez direla bakarrik liburuetako gauza ikusten dute»

**Duela 30 urte laborantza lizeo gisa ireki zenetik aldaketa ainitz izan dira Saint Christophe ikastetxean, ez da?**

Senpereko laborantza eta nekazaritza es-

kola hau berezia da, zeren eta ez du gaurko egunean laborantza tradizionalarekin ikusteko haundirik. Lehenago hala egiten genuen eta Senpereko eta auzo herrietako ikasleak genituen, denak nekazaritzari buruz ari zirenak. Baina duela hogeitau urte kanbiatu genituen hemengo erakasketak eta formakuntzak, eta

hartu genuen bihurgune haundi bat: ingurumenari buruz itzuli ginen, nekazaritzako ikasleak gero eta guttiago baitziren eta zerbait egin behar zen. Orduan bi sailetan hasi ginen irakaskuntza berria egiten: bat urari atxikia, erreka teknikari eta arrain hazkuntzaren gainean eta bertzea ihiztia eta ihizizaingoaren

ofizioaren gainean. Guretzat orduan pario bat zen, badakigu euskaldunok parioa maite dugula. Beraz, duela hogeitau urte hasi ginen formakuntza horietan. **Teorikak ez ezik, praktikak ere leku berezia du ikasketa hauetan.**

Arrain hazkuntzako praktikak Senperen berean dagoen INRA

Insititutu Nazionalen egiten ditugu. Arrainaren gainean ikerketak egiten dituzte eta heiek badute piszifaktoria bat. Gure eskolako ikasleek ibiltzen dute eta kontent dira: han ikusten dute arraina arraultzetik hasi eta nola hazten den, nola haunditzen den. Liburuko gauza bakarrik ez dela ikusten dute.

*txilergo mailako formakuntza eta azkena, delako tekniko superior mailakoa». Lizeoko ikasketak akautu eta lana topatzea izaten da hurrengo pausua. Zubillagak dioenez, aterabide aunitz izan dezakete Saint Christopheko ikasleek: «Arrain hazkuntza eta ur erreka teknikalari entzuten aunitz aipatzen dute lan berri frango sortuko dela, baina ez dakigu noiz, ez dugu ikusten lanbide berririk sortzen».*

### **Klase praktikoak Senpereko INRAREN arrain haztegia**

Ingurumenarekin lotutako ikasketak izanik, ikastetxe bakoitzeko klase teorikoak ez ezik, ikastetxetik kanpo klase praktikoak ere izaten dituzte. Ihizi zainak mendirat ateratzen dira. Arrain hazkuntza eta erreka zain ikasketak egiten dutenek, praktikarako leku egokia dute ikastetxetik hurbil, Senperen berean dagoen Agronomia Ikerketendako Institutu Nazionalak (INRA) utzitako arrain haztegia. Amorrainak hazten dituzte gehienbat, arraultzetik hasi eta arraultzeak egiten dituzten arte. Horretaz gain, Txinatik heldu diren kolore guzietako karpak, izokinak eta esturionak ere badituzte, baina arrak bakarrik, beraz ez da kabiarrik ateratzen lizeotik. Ur-putzu batetik bertzerera mugitzen di-

tuzte ikasleek amorrainak, beraien adinaren, neurriaren eta egoeraren arabera –ttikiak, arraultzeak egitekoak, arraultze egindakoak—. Ikasleek haztegia egiten dituzten lanen berri eman digu Albert Zubillagak. «Praktikoak arrain haztegia egiten dituzte eta hemen ikusten dute arraultzetik hasi eta arrain ttikia nola haunditzen den. Ikusi behar da hau ez dela produktioa egiten duen arrain haztegia, praktikak egiteko eta ikasteko baizik. Hainbeste ikasle pasatzen da eta denek ongi egin nahi dute, baina ikasten ari dira eta denek ez dute ongi egiten. Haunditzen den arrainak baditu merximenduak hemen, azkarra da nonbait».

Putzu eta erreken gainean sareak ezarriak dituzte, baina ez amorrainak alde egiteko beldurrez, arrainak jaten dituzten lertxunen beldurrez baizik. Michel Setoainek erran digunez, «ez da libre lertxunak hiltzea eta ez da komeni, gainera. Lertxunek bere lurraldea zaintzen dute. Bat hilez gero bertze borts etorriko lirake lurraldea hartzera».

Haztegia hazitako amorrain gehienek errekarako bidea hartzen dutela erran digu Albert Zubillagak: «Saldu egiten ditugu batzuk, baina gehienak errekarara joaten dira, Senpereko erreka arraza baita. Hemengo Arrantza Elkarteak erosten dauzkigu arrain aunitz». ■

Michel SETOAIN *Ihizi zaingo erakaslea*

## «Ihizatuak nahiz babestuak diren azienden gaineko teoria erakasten dugu»

**Zer ikasgai dituzte ihizi zaingo ikasleek?**

Ikasketa frango teknikoak dira. Baso ihiztia nola kudeatzen den ikusten dugu, kondaketak nola egiten diren, populazioaren eta ingurumenaren errespetuan nola ihizatu... horiek denak ikasten dituzte, gero ihizizain edo Ihizi Federakuntzetako teknikalari gisa lan egiteko. Animatzaile ekologiko gisa ere aritzen ahal dire lanean.

**Zein animaliei buruz egiten dituzte ikasketak?**

Teoria azienda gehien gainean egiten dugu, ihizatuak direnak baita babestuak direnak ere. Praktikak



egiten ditugu, galdea nola heldu den... Parte hartzen dugu uso kondaketan, Akitania, Euskadi eta Portugalen. Heldu den hilabetean, bi egunez orkatz atxemaite batean parte hartuko dugu Landesetan, Kataluniara joan direnak. Orkatz kondaketa batzuetan ere parte hartzen dugu. Orain lortari –igaraba edo

nutria– buruzko lan bat prestatzen ari gara Euskal Herria guzian, Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdin. Harremanak ditugu Euskal Herriko probintzia guzietan eta ez bakarrik Frantzia.

**Erreka teknikari ikasten ari direnak arrain haztegia joaten dira. Zuendako mendia izan da praktika leku nagusia...**

Bai, mendira egiten ditugu ateraldiak, hemen inguruan eta leku handietan, Landesetako itsaso bazterretan aunitz azienda klase ikusi eta ikasten ahal dira. Txanxa handia dugu alde hortarik, lurralde horiek eskura baititugu.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 7.100 ALE

**Helbidea:**

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
Faxa: (+34) 948 63 12 91

**Internet:**

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

**e-mail:**

[ttapi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttapi-ttapa@topagunea.com)

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.  
**Presidentea:** Pello Apezetxea.  
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Iri-goien. **Zuzendaria:** Aitor Arotzena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Asier Gogortza. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arozena, Asier Gogortza. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra... **Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarte...

**Harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria ... 2.200 Pta.  
Ipar Euskal Herria ... 160 Libera  
Europa ... 4.000 Pta.  
Amerika ... 16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

## Nafarroako behiei lehendabiziko analisiak

**Hau bolada txar bat besterik ez da, bere buelta izanen duela uste dut**



Esteban ZABALETA  
Bordaberri. LEITZA

Analisiak hasi direnetik lehendabizikoa aste honetan tokatuko zait. Aste honetan eraman behar du behi-zahar bat hiltzera. Guk Donostiara eramaten dugu eta beraiek egiten dituzte analisiak eta gainontzekoak. Hemen inguruan ez dut uste analisi gehiago egin direnik, hemen haragi behiekin gutxi ibiltzen baitira. Batzuk 4 edo 5 behi dituzte eta bakarren batek 10-15, eta gero esnetakoak 3 edo 4 abeltzain gaude.

Orain egiten hasi diren analisi haue-tan bakarren bat positibo agertzea ez nintzateke batere harrituko. Neri ere igual-igual tokatzen ahal zait, hori loteria bat bezala da. Tokatuz gero ikuiluko behi guztiak kendu behar dira, nahiz eta indemnizazioa ematen omen duten. Dena den ez da %100a izanen, hori seguru. Astakeria iruditzen zait bat kutsatua egoteagatik denak kentzea. Izan ere, besteak kutsatzeko arriskurik ez dagoela esaten dute, eta egonen balitz ere hiltzeko garaian analisia egiten zaie denei, beraz, batek positiboa ematen badu baztertu eta puntu. Ederki nabaritzen da behi eroen kontua. Orain behi zaharrak prezio erdian daude, txekor txikiak 5-10.000 pezeta gutxiago balio dute. Etorkizunera begira nik uste dut buelta izanen duela honek, bolada txar bat besterik ez da.

**Politika hau aldatzen ez badute desagertu egingen dira esplotazio tikiak**



Juan Martin ALEMAN  
Alemantonea. AMAIUR

Haragi behiekin abeltzain franko gaude Baztan aldean. Horietako aunitz

analisiak egiteko esperoan daudela badakit, bainan ez dut oraino nabaritu inork egin dituenik. Analisisak egiterakoan gaitza duen behiren bat agertuz gero ez nintzateke batere harrituko, kasik gehiago harrituko nintzen ez agertzea. Hemen pentsu kontzentratua ibiltzen da aunitz lekutan, eta hoietan azkenik ez dakigu zer sartzen duten. Nik etiketari begiraten diot batzuetan, zein osagarri dituen, bainan ez dira batere garbi agertzen eta horregatik utzi nion pentsu hori erabiltzeari. Azken finean politika produktibista baten ondorioa da hau dena. Animaleko produktibismoa egiten da multinazionalekin, eta gero produktzioa kontsumoaren gainetik dago. Orduan merke produzitu behar da eta horretarako kakarekin bazkatu behar. Lehen ez ginen sobera ongi bainan orain animaleko paliza da esplotazio ttipientzat. Enpresa handiek produktuekin bonbardeatu eta merkaturko prezioekin ito egiten gaituzte. Ez badute politika aldatzen desagertu egingen dira negozio familiarrak. Akitu nahiko nuke erranez baserri mundu hau bizi kontzeko enpeinu handia jarri beharko litzateke kontsumitzaileen aldetik ere. Bertzenaz hau akabo da.

**Kontsumitzaileek diru gehiago gastatu beharko dugu kalitateko janarian**



Julio SALINAS  
Berako albaitea

Nafarroan posible da behi eroen kasuak agertzea? Bai, dudarik gabe. Asturiasen

berriki bi kasu ateratu dira. Gaur egun azienda bat hiltzen denean laginak hartzera etortzen dira, eta hiltegiara eramaten diren guzietan ere egiten zaie analisia. Baserritarrek nahiko kezkatuak daude. Hemen gutti bizi dira aziendetatik, bainan txekorrek lanean ari den norbait ezin ditu saldu, merkatua aunitz jautsi delako. Nere ustez gainera, gaitz honek aitzinera segituko du eta denbora luzea beharko da bolada txar hau pasatzeko. Baserritarrek dirulaguntzak eskatzen dizkiote estatuari txekor bakoitzarengatik, bertzenaz dirua galtzen dutelako. Izan ere, azienda hilak erretzeak ere diru aunitz balio du, Nafarroan ez dago errauskailurik, kanpora eraman behar da erretzera. Erran behar da muinak dira kutsatzeko arrisku handiena ematen dutenak, haragiak ez horrenbertze, eta esneak ere ez. Dena den, gaitz arrot zaila da hau. Nik uste poliki-poliki moztuko dela, bainan dagoeneko 15 urte baditu eritasun honek. Nik kontsumitzaileei egingen nieke aholku bat: kalitatezko produktuak erosi, munduan produktibitatea nagusitzen ari delako jan eta edanetan. Guttiago begiratu beharko dugu zenbat gastatzen dugun jatekoetan.



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

# ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara  
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

**BURLATA:**

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

## KOLABORAZIOAK

 **Joxerra LOPEZ** Lagun-Artean taldeko kidea

## Guatemala: Begirada bat



**Munduan eza-**rritako eredu kapitalistak funtzionatu eta Lehenengo Munduan kontsumismo maila mantendu ahal

izateko behar beharrezkoa dugu beste herri batzuk zapalduta egotea. Azken urteetan diseinatutako garapenerako bideak (GKE, %0,7, eta abarrek), beste aldetik, porrot egin dutela argi dago, herri hauen egoera ez baita bat ere hobetu.

Guatemalari buruzko datuak, esate baterako, izugarriak dira: langabezia %60koa da, desnutrizio tasa Ertamerikako handiena, analfabetismoa %60koa baino altuagoa, herriska gehienetan ez dago osasun zerbitzurik... eta zerrenda izugarri hau nahi beste luza genezake, Guatemalan ez ezik «Garapen bidean» diren gainontzeko herrietan ere. Eta hemen gaude nok zerbait egin ote dezakegu egoera hau ez areagotzeko?

Lehendabizi kontzientzia hartu guk kontsumitzen ditugun produktu merkeak ea nondik etorriak diren. Esku artean erabiltzen ditugun produktuen etiketari begiratzea besterik ez dago nondik datozkigun ikusteko. Ze soldata pagatzen zaie hango lan-

gileei guk hemen horren merke erosteko? Adibide bat hau guztia zehazteko: Guatemalan kafea, bananaok, azukrea eta brokolia landatzen dira esportatzeko. Zenbat irabazten dute lan horietan aritzen direnek? Hango nekazariak egunean 20-25 Quetzal irabazten dute (500-600 pezeta; 20-24 Libera) goizetik gauera arte lan baldintza txarretan egindako lanaren truke.

Diru horrekin ez zaie, inondik ere, duintasunez bizitzeko heltzen.

Zenbat irabaziko dute Indian edo Afrikan lan egiten dutenek?

Ez al du hemen langile mugimenduak gogor borrokatu soldata duina izateko? Zergatik ez gara kezkatzen herri hartako langileen soldata eta lan baldintzengatik?

Bigarrenaz, hemendik luzatzen zaizkien dirulaguntzak askotan

nahi badugu lagun dezagun, baina baldintzak jarri gabe. Bestela orain arte bezala segituko dute. Guk dugun modelo kontsumista, indibidualista honetara hurbiltzeko itzelezko ahaleginak egiten, zorrez betetzen diren bitartean.

Edozein modutan, dena ez da txarra. Argi dago kontzientzia maila gero eta handiagoa dela, «komertzio justua» bultzatzen duten dendek ez dute porrot egiten, hemendik hara jarrera irekiaz egoera *in situ* ikustera jotzen direnak ere gero eta gehiago direlarik. Eta benetan esperientzia aberasgarria dela haraino hurbildu eta egunak, hilabeteak edo urteak beraiekin konpartitu ahal izatea. Harrigarria da materialki hain gutxi duen jendearen artean dauden pertsona apartak aurkitzea; pertsona eskuzabalak, euren komunitateari emanak, ezer gutxi izan arren beti emateko prest egoten direnak.

Bukatu aurretik lerro hauetatik azken konbitea luzatu nahi nitzuke: aukera baduzue haraino hurbildu eta beraiekin bizi garai batez (bakoitzak ahal duen neurrian). Seguru ez zarela damutuko.

**Zergatik ez utzi eurei euren garapen eredia garatzen? Lagundu nahi badugu lagun dezagun, baina baldintzak jarri gabe.**

**Bestela, orain arte bezala segituko dute.**

**Guk dugun modelo kontsumista, indibidualista honetara hurbiltzeko izugarritzko ahaleginak egiten, zorrez betetzen diren bitartean.**

baldintza zehatz batzuen mende emanak izaten dira, gure Lehenengo Mundu honetako gizarte eredia ezartzeko.

Zergatik ez utzi eurei euren garapen eredia garatzen? Lagundu

**GAZTANDEGIA**  
  
**Etxeko**  
**Ardi Gazta**  
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

**ttipi-ttapa internet**  
<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>  
 E-mail: [ttapi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttapi-ttapa@topagunea.com)

  
**APARAN, S. A.**  
**BRIKOLAIA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
 948 451 541  
 Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**ETXANDI TXOKO**  
**jatetxea**  
**Bazkari, afari eta gosariak**  
**ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91**

  
**BELARRA**  
 OSTATUA - JATETXEA  
 Ameztia karrika • DONEZTEBE  
 Tfnoa: 948 45 03 06



Euskaldunon Egunkaria 01eko urtarrilak 9

«Mendialdeko klima askoz epelagoa da orain eta elur gutxiago egiten du. Askotan entzuten dena da, baina egia da. Denak gogoratzen ditugu elurte haundiak, baita garaia arraroetan ere. Apirilaren 18 batean, elurrak sagorrondo bat bota zuela ikusi nuen. Beste behin, maiatzaren 6 batean herria ere xuritu zen».

**Miguel SUKUNTZA**  
Leitzako Sorobarren baserrikoa  
Diario de Navarra 01-01-08

«Everest-era igotzeko, aitzinetik 12.000 kilo material itsasontziz

bidali genuen Bombay-era eta handik hegoaldeko oinarritzko kanpamendura ailegarazi behar zen. Orduan ez zeuden gaur eguneko komunikazioak eta hagitz zailak ziren honelako espedizioak».

**Xabier ERRO**  
Lesakako mendizalea  
Diario de Noticias 01-01-18

«Gure etxean ez da inoiz ilarrik falta, ogia faltatuko balitz bezala izanen litzateke».

**Josefina SAGARDIA**  
Lesakako Kasino jatebtxea  
Zazpika (Gara) 01-01-07

### ◆ Zer izan nahi zenuen ttikitian...

◆ Abestea beti gustatu zait eta horrekin segitu nahiko nuke.

### ◆ Irakaslea izanik, zer irautsi dizute haurrek?

◆ Zeinen beharrezkoa den jostetan aritzea eta zuk beraiekin parte hartzea.

### ◆ Noiz eta nola sortu zen Zioren musika taldea?

◆ 1998ko iraila aldean, bakoitzak musikarekin genuen zaletasuna elkartu eta poliki-poliki taldea osatzen hasi ginen.

### ◆ Kantak egiterakoan, non bilatzen dituzue gaiak?

◆ Bizitzaren egoera eta momentu ezberdinetan oinarrituak daude.

### ◆ Grabatu berri duzuen kantarik gogokoena?

◆ «Nola?» kanta. Hau egin zenean, barrenera gehien ailegatu zitzaidana izan zelako.

### ◆ Zioren taldearekin ametsik bete al da?

◆ Oso osorik bete da, nire betiko ilusioa izan baita.

### ◆ Gaua ala eguna nahiago duzu?

◆ Gaua gehiago gustatzen zait, libre eta lasaiago delako.

### ◆ Ezagutzen duzun mendi gailurrik politena?

◆ Mendaurko tontorra, aunitan joan naizelako eta oroitzen onak ekartzen dizkit.

### ◆ Mendien gozatutako momenturen bat?

◆ Gailurrera ailegatzeko naizenean somatzen dudana betetasuna.

### ◆ Lagunekin galtzeko lekuren bat?

◆ Inor egonen ez den irla bat.

### ◆ Udaletxeko zinegotzia ere zara. Herrian zer da falta den gauzarik premiazkoena?

◆ Parke berde eder bat, inguruan gazteentzako etxebizitzekin.

**Idoia ETXEBERRIA**

Irakasle eta kantaria  
ARANTZA

## Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak



**ZALAIN**  
JATEBIXIA  
EGUNERO ALFONSO DE KASTA

Zalain Auzoa  
© 948631106  
**BERA**

**Boda eta banketeak ematen dira**

© 948631076 • **BERA**

**SELAZONES UDANA, S. L.**

*Importaziozko lehen kalitateko bakailu gaztusia  
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest*

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

Rafa: 600 819 640  
Jose: 666 235 466

**PINTURAS LEGUIA S.L.**  
Eztegara 26, 2.C - BERA

**Iriarte-Echandi, s.i.**

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri | • BERA • Tel eta Faxe: 948 631169



## KULTURA

# Mariano Izeta idazle eta euskaltzale elizondarra ilbeltzaren 8an hil zen

Baztango erranairu eta solasak bilduak zituen bere liburuetan

TTIPI-TTAPA

Mariano Izeta idazle eta euskaltzalea ilbeltzaren 8an hil zen Elizondoko bere etxean, 85 urte zituela. Euskaltzale fina izateaz gain, Baztanen nahiz Nafarroan euskararen alde egindako ekimen aunitan hartu zuen parte: Baztango Ikastolaren sorreran, bertsolari txapelketako antolaketan edo balleko hiztegegintzan. Erlojularia ofizioz eta mutil dantzaria afizioz, mendizale, noblelagile eta Xorroxin eta Irulegi irratietako berriemaile ere izan zen. 1997an Elizondo eta Baztango Seme Kuttun izendatu zuten. Urtetan euskaltzain urgazlea izan ondotik, joan den abenduan ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak.



Mariano Izetak beti zabalik izan du bere etxeko atea euskararen aldeko ekimenentzat. Artxibokoa

### ARTIKULU, ELEBERRI ETA HIZTEGI EGILE

1957. urteaz geroztik bere idatziak argitaratu eman zituen «Zeruko Argia», «Herria», «Arantzazu», «Príncipe de Viana» eta bertze al-

dizkaritan. Horretaz gain, hiru eleberrri ere idtzi zituen: «Dirua galgarri» 1962an, «Nigarrez sortu nintzan» 1982an eta «Sorgiñak infernuko errekan»

1985ean. Artikulugintza eta eleberriez gain, hiztegegintza ere maite zuen. 1985ean «Baztango hiztegi tipia» karriratu zuen, 1993an «Baztango erranai-

ruak», herriko 3.000 solas eta 350 erranairu bilduz eta 1996an bere azken lana, «Baztango hiztegia».

Familia euskaltzale eta abertzale batean hazi eta hezitakoa, 15 urterekin gerra aitzezinean hasi zen bere aitarekin erlojuak konpontzen. 18rekin EAJn bazkide-tu zen eta 1935ean Baztanen sortu zen lehen-dabiziko ikastola egiten ere parte hartu zuen.

1957-58 urteetan Elizondoko alkate izan zen eta 1977ko hauteskundeetan Baztango Herriko Etxerako zinegotzi aukeratu zuten, EAJren zerrendetan. Alderdiak Nafarroan izandako zaitketaren ondotik ez zuen politikagintzan segitu. Halere, abertzale-tzat zuen bere burua, «politika guzien gaine-tik, hemengo herria, ohi-turak, hizkuntza, jendea eta bizimodua arras maite ditudalako».

Bera ere arras maite-tatua zen eta jendetza handia bildu zuen bere hileta elizkizunean, ez ordea, Nafarroako Go-bernuko ordezkari-rik.

### Bai Euskal Herriari ekimenak Nafarroako Gobernuaren eraso salatzen du

«Nafarroako Gobernuak onartutako neurriak herrien eskubide kolektiboen eta norbanakoaren hizkuntza eskubideen kontrako erasoak dira» Bai Euskal Herriari ekimenak adierazi duenez. Joan den ortzegunean egindako agerpenean, ekimen honetako ordezkari-ek adierazitakoaren araber, «aipatu neurriak ez dira soilik euskararen eta euskal kulturaren kontrako erasoak, euskal herritar-tasunaren eta Euskal Herriaren aurkako erasoak baizik».

Bai Euskal Herriari erakundearen ustez, «neurri hauen nafar-ron gehiengoak eus-kara eta kultura nazio-nalaren alde adierazi dugun iritzi, eskari, jar-rrera eta aldarrika-penari muzin egiteaz gain, ez dira inolaz ere euskararen zabalkun-tza zein normalkun-tzarako lagungarri». Honela dei egiten die-te euskal herritar gu-ziei, «geureari euste-ko etorkizuna eraikiz: euskara babestuz geu-re etorkizunaren bide eleanitza jorratzeko».

**J. RAMOS**  
Zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut  
© 948631342 BERA • © 948631712 LESAKA

**SAROBÉ**  
okindegia   
SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
Altzate 17  
BERA  
© 948 630 763

**zapatadenda.**  
**kalotxa.**  
**osagarriak.**  
**konponketak.**  
Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

**bortzirUDI**  
BERA  
FOTOKUPIAK, ENKUNBERNAGAZAK, PAPERITUGIA, DISKINU GUAFIRGA, INBIBUNTA LANAK, SERRAELA, FAXA, E-SMARA, IRIBITUTIAK, SKANNERIA, ARGAZKI MUNTALAK, PUBLIZITATEA  
Eztegara 26 beheba Tel.- Faxa: 948 63 15 21



**Kultur Etxea, zine emanaldietarako prest**

Irudian ageri diren bi zine proiektore horiek eta pantaila erraldoi bat erosi zituen iaz Berako Udalak Bertizko Partzuergoarekin batera. Material honeri esker hilabetean behin filme bat izanen da Kultur Etxean. Hasiara batean programazioa haurrei zuzendu bazaie ere, apiriletik aitzinera helduentzat hainbat pelikula izanen dira ikusgai. Gainera, zinea proiektatzen ikasteko ikastaro bat antolatu dute. Otsailean hasiko da, eta 4 orduko 4 saio izanen dira, bai teorikoak eta bai praktikoak.

**flash**

**Gure Txokoa, indarrean**

Denboraldiaren erdia joan delarik, erregionaleko lehen mailan nagusi da Berako futbol taldea, azken partiduan Danakeri 2 eta 4 irabazi eta gero. Lerro hauek idazterakoan hamabortz partidu jokatuak zizutzen, horietatik 13 irabazi eta bi berdinduz. Bide honetan segituz gero, heldu den urtean mailaz goitzeko aukera aunitz dute.

# Guatemalako haurren hezkuntza ordaintzeko laguntza eskean

Igandean bilkura egin zuten Lagun Artean taldeko bolondresak

**ASIER GOGORTZA**

Asteburu honetan bildu dira Berako Kultur Etxean Lagun Artean taldekideak. Proiektu honen arduradunak (Guatemalatik hitzaldi hauek ematera espres etorriak) eta hemengo boluntarioen arteko kezka eta zalantza trukaketa aberasgarria izan zen igandekoa.

Talde hau Getxon sortu zen 1997an, baina azken urteotan eskualde honetan ere bildu ditu hainbat atxekimendu. Denetara 30 bat lagun dira Baztan-Bidasoan Guatemalako haurrak lagutzeko konpromezua hartua dutenak. Hoiengoa laguntza ekonomikoari esker hango bertze hainbertze haurrek lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza edo batxilergoa ikasteko aukera dute gaur egun.



Laguntza jasotzen duten haurren eta ematen duten familien arteko harreman zuzena izanen da.

**INSTITUZIOETATIK AT**

Lagun Artean, ize-nak dioen bezala, pertsonen arteko proiektua da, ez du inolako instituziorekin zerikusirik. «Hezkuntza ona jasotzea da bizi duten egoerara latza aldatzeko aukera bakarra, nahiz eta

zaila izan» adierazi digu Joxerra Lopezek, Lagun Artean boluntario taldeko kideak. «Hankomite batek erabakitzen du zein diren beka jasotzeko behar duten haurrak –famiaren jarraitatik, ahalmen ekonomikoarengatik...–,

gero eta gehiago dira beka hotek behar dituzten ikasleak» dio. Lehen hezkuntza ikasten hasten direnetatik aunitz dira bidean gelditzen direnak (%40a gutti goiti beheiti). Hango ikasle bati Lehen Hezkuntza ordaintzeko

1.300 pezeta behar dira hilabetero. Bigarren Hezkuntzara pasatzen direnek jadanik meritu handia dute, batez ere neskak direlarik. Izan ere, 16 urte ingururekin haurdun gelditzeko arrisku handia izaten dute, eta orduan ikasketak uzten dituzte halabeharrez. Bigarren Hezkuntza 2.200 eta 3.500 pezeta artean gostatzen zaie hileroko. Batxilergoa egiteko, berriz, hirira jo behar dute, internadora, eta hori garestixeagoa da, 7.500 eta 15.000 pezeta artean.

Laguntza ematen duten familien eta jasotzen duten haurren artean harremana zuzena izan dadin, urtero hiru aldiz bederen idaztea eskatzen zaie bi aldeei. Norbaitek bere laguntza emateko asmoa badu, aski du Joxerrarekin harremanetan jartzea: 943 647 065 telefonoan.

**Javier Manterola**  
TEKNIKO  
INSTALATZAILEA  
iturgintza • gasa • kalefakzioa  
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

IRITZINE - GOGORTZA  
  
Aitzate, 19•948630786 •BERA

**ALZURI**  
• Sukalde tresneria eta opariak  
• Landare eta loreak  
Tel.: 948 630 370 • BERA

© 948630052•Zalain•BERA

**LESACA**

# Jesus Mari Camba irundarra lan istripuan hil zen Aceralia lantegian

Urtarrilaren 16an gertatu zen ezbeharra, hamalagarren zizallan

AITOR AROTZENA

Urtarrilaren 16ko goizeko 10,30ak aldeira Jesus Maria Camba Martinez Aceralia enpresako 50 urteko langileak lan istripu batean bizia galdu zuen. Irungo langile hau, lanean ari zen makinak irentsi egin zuela erraten ahal da, txapa mozteaz arduratzen den hamalagarren zizalla ize-neko fabrikako atalean, hain zuzen.

Sortzez Barakaldokoa eta bizitza Irunen egiten zuen langile hau orain dela gutti aldatu zuten atal honetara eta istripua gertatu zenean postu horretan egoten diren hiru langileetatik bera bakarrik aurkitzen zen lantokian. Kasualitatez botikan zegoen bere lankidea postura bueltatu zen arte inor ez zen istripuaz ohartu. Gertatutakoa ikusi bezain laister lankide hau izan zen ezbeharren berri eman zuena.

Segidan Aceraliako sindikatu nagusienak Enpresa Batzordean bildu ziren, istripuaren nondik norakoak aztertu eta zoritxarreko gertakariaren aintzinean zein mobilizazio egin behar ziren erabakitze-ko.

Lehenbiziko neurri



**Segurtasun neurriak hobetzearen beharra nabarmendu da, Aceralian heriotza eragin duen urteko lehen istripuaren ondotik.** Artxibokoa

bezala, egun berean goizeko 11,30etan lan uzte orokorrerako deialdia zabaldu zuten, biharamon goizeko 6ak arte. Protesta honen birtartez sindikatuetakordezkariek lantegian oraindik segurtasun neurri falta nabarmena dagoela salatu nahi izan zuten. Julen Mitxeloren, LABeko kideak erran zuenez, «*laminazioan segurtasunaz eta lan osasunaz arduratzen den batzordea ongi ari zen lanean, baina ikusten da neurri guztiak ez direla aski eta areagotu behar direla. Langileen osasuna eta segurtasuna lantegiarren ardura da*».

## El Salvadorreko lurrikara

El Salvadorreko lurrikarak lesakarrak berreziki hunkitu ditu, izan ere bertan baitaude lanean azken urteotan Garbiñe eta Amaia Larralde ahizpak. Eguberriak herrian pasatu ondotik, Ertamerikara itzuli berriak ziren bi ahizpak. Beraiek ez dute minik hartu, baina orain burubelarri lanean ari dira hondamendiaren erdian. Amaiak telebistan egin dako agerpenean adierazi zuenez, «*ura eta janaria ez ezik, dirua ere behar beharrezkoa da*». Horretarako kontuak zabalik daude aurrezki kuxta guzietan.

## San Anton Egungendetsua

Urteroko ohitura segituz, Lesaka eta inguruko herrietako hainbat lagun bildu dira igande honetan Endara auzoan ospatu den San Anton egunean. Lesakako Gazte Asanbladak deialdi berezia egin zuen. Goizean plazatik abiatuta, Gardelberrin gosaldu eta San Antonetik bueltan, Arranon bazkaldu zuten.



**Xabier ERRO**

*Personaiak*

### Duela 25 urte Aconcagua igan zen lehen nafarra

Duela 25 urte, 1976ko otsailaren 18an, igan zuen Aconcagua mendia (6.959 metro) Xabier Erro, Alanzarreko mendizaleak. Bera izan zen Hegoamerikako tontorrik altuena zanpatu zuen lehen nafarra –lehen euskalduna izateko hameka egun berandu ailegatu zen, Juan Ignacio Lorente eta Angel Rosen arabarrak aitzindu baitziren-. Erroekin batera espedizioan zoazin bi argentinar eta suitzar batek 6.400 metroan utzi zuten, nekearen ondorioz. Honela, lesakarrak bakarrik egin zuten azken zatia eta tontorrean bere buruari egin behar izan zion beheitian ageri den argazkia. «*Elurra belauetaraino nuen eta bidea ireki behar nuen. Aunitz sufritu nuen eta horregatik poza handiagoa izan zen. Egunderra ateri zen, ez zen hotzik eta paisaia zoragarria zen. Egundertan Aconcaguaz betirako maitemindu nintzen*» dio Xabier Errok.

**BEKO**  
Lore eta landareak  
© 948 63 78 26  
Frain auzoa • LESACA

*Deñe*  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 948 627 514  
Behoko Plaza 8, LESACA

*ANNA*  
Janaridenda  
Bittiria 41 • 948 637518 • LESACA

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
© 948627573 • LESACA

**kiskun**  
Ileapaindegia  
Tel: 948 637429  
Bittiriako Plaza, 3 behea  
LESACA

**ETXALAR**

# Lorpeneko eraikin berriaren obrak apirileko akautuko dira

Arrakastatsua izan zen errege eguneko txokolatada

JOSEBA ETA NEREA

Denok begibistan ditugu aspaldidanik Lorpen galtzerdi enpresaren obrak. Badira hilabete batzuk Beolaldean, "Usoa" kooperatibaren ondoan, eraikin berria egiten ari direla. Jose Manuel Bizente sozioak errandakoaren arabera apirila aldeko obrak bukatzea espero dute. Horren ardura Pedro Juan Lasagarena da eta oraindik akautua ez baldin badago ere, itxura hartzen ari da poliki-poliki.

**Etxeberriko bordako zubia**

Urritzokieta auzoko Etxeberriko borda baserriaren ondoko zubia moldatu berri dute. Aspaldixko da auzotarrak obra horiek egitea eskatzen zutela. Udaltxeari eginiko eskarien ondotik lortu zuten obra egin ahal izatea. Berako "Txantre" enpresak hartu ditu bere gain berri-tze lanak. Hasiera batean, 2.000. urtea akautu baino lehen obrak eginak egon behar baziren



**Haurrentzako txokolatada**

Badira bederatzita urte Larraburua elkarteak errege egunean txokolatada antolatzen duela herriko haurrentzat. Lehenbiziko urtetan jende kopuru handiagoa biltzen bazen ere, aurtengoan 30 batek jan zuten txokolatea. Honetaz gain, berendua segidan, zozketa bat egin zuten. Zazpi sari banatu zituzten (bonboiak, goxokiak, etab.) eta ondotik, nahiz eta ez musikarik izan, bertan gelditu ziren ilunabar ingururarte haur guztiak. Birginia Arburua elkarteko kideak eginiko balorazioa positiboa da, eta bertze urtetan errepikatzen segitzeko moduko ekitaldia dela aipatu digu.

Arg.: Joseba Olagarai

ere, oraindik bukatze-koak daudela ikusten dugu. Zubiaren plantxa

botaria dago baina oraindik barandilak jar-tzea falta da.



Nagore ANSALAS

*Personaiak*

**Pandereta irakaslea**

**Noiz eta nola hasi zinen pandereta klaseak ematen?**

Duela urte bat Jasone Mitxeloren eta niri esperientzia aberasgarria izan zitekeela pandereta ikastaro bat antolatzea gogotu zitzaigun. Haur multzo bat apuntatu zen eta orain nik bakarrik segitzen dut.

**Nola antolatzen dituzu klaseak?**

Astean egun batez ematen ditut: Ortziraletan, ordu batez.

**Herrian bertan, instrumentu honekiko zaletasuna ikusten duzu?**

Nik uste baietz. Hori nire ikasle guztiak erakusten dute, gero eta gehiago apuntatzen baitzaizkit.

**Zer erranen zenuke norbait pandereta jotzera animatzeko?**

Hagitz esperientzia polita dela. Irteera aunitz egiten ditugu. Jende berri-pila bat ezagutzen da.

**BORTZIRI UNSION ANAIAK**  
sukalderako haltzariak

**ERAKUSKETA**  
Bereau etxea • LESAKA  
Tel eta Faxe: 948 637 266

**OBRA PROIEKTUAK**

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

**Ioredenda**

Albistur, 39-K  
☎ 627542  
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

**IGANTZI**

# Nekazariak kezkatuak ilbeltzaren 12an egindako bileraren ondotik

Hagitz zailak paratu dituzte gauzak nekazari izateko, herri inguruan batez ere

OSKAR TXOPERENA

Azkeneko alean aipatu genuen bezala, bilera informatiboa izan zen Herrikoetxean ilbeltzaren 12an herriko nekazariarentzat. Gaiaren garrantziaz ohartuta, jende aunitz bildu omen zen batzar-aretoan. Bertan, teknikari leitzar batek orain dela hamabortzen bat urte onartutako dekretuaren azalpenak eman omen zizkien. Kontua da dekretu horrek nekazari-esplotazioek bete beharreko baldintzak izugarri zorrozten dituela. Errate baterako, nekazari-esplotazioa legezkoa izateko herri ingurutik 300 metrotara egon beharko omen du guttienez edo bertzela azienden kopurua mugatu (bi behi, hamar ardi....).

Horretaz gain, bere



## Zuhaitzaren Eguna

Hasiera batean, Zuhaitzaren Eguna, eskolak urtero antolatzen duen besta, otsailaren 1ean izanen da, arratsaldeko 2,30etatik aintzinerara. Euria eginen balu, berriz, otsailaren 8an egitekotan gelditu dira. Juanjeronimorda ondoan, orain arteko araje beretsuan, bilduko dira haur eta gurasoak ehunen bat zuhaitz landatzeko. Eskolarekin zerikusirik ez duen norbaitek joan nahiko balu ere ez lioke seguraski inork trabarik paratuko. Iazko argazkian ikusten ahal den bezala, jende multzo polita biltzen da.

gariaian esplotazioa legez-tatu ez zutenek izuz-garrizko tramitazioak egin beharko omen di-

tuzte epea bete baino lehen. Gauzak horrela izanik, ulertzekoa da nekazariak kezkatuak ego-

tea, azken hamar urtetan ez baitute traba bertzetik izan alde guzietatik.

## Herriko eraikinen garbiketa

Abenduaren 29an egindako bilkura berezian 2001. urtean Herrikoetxea, eskola eta medikuaren kontsultaren garbiketaz nor arduratuko den erabaki zuen Udalbatzak. Bieskaintza zeuden, bata Virtudes Iguzkiagirre-rena, eta bertzea Korpus Txoperenarena.

Bi eskaintzak berdinak izanik, baldintza pleguan zioenaren arabera, zozketa egin zuten, lanpostua Korpus Txoperenari egokitu zitzaizkiolarik. Aipatutako lanetaz gain, herri ingurua ere astero garbitu beharko du. Lanpostua autonomo gisara beteko da, 1.572.000 pezeta (BEZ barne) ordainduko zaizkiolarik, hilabetero 80.000 pezeta garbiak, gutti goiti behiti.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaiak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujandada' Mazoia  
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK

Makinaria eraikuntza  
Moldaketak eta despiezea  
Mantenimendu mekanikoa  
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzioko Bentak • © 948 627572 • Faxa: 948 637508

**E D A R I A K**

MANILLAS INTERNAS S.L.

Bidasoa 8 / 82 31001 BERA (Nafarroa)  
Tel. - Fax 948 63 10 27

**DROGUERIA MOLINERO**

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina  
10 minututan zuk nahi duzun kolorea  
Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • © 948 63 02 40 • BERA

**ARANTZA**

# Urtarrilaren 31 bitarteko epea izanen da iazko udal kontribuzioak ordaintzeko

Zazpi milioitik goiti bilduko ditu Udalak tasa ezberdinen bitartez

ELIXABET ETA GARBIÑE

Joan den urteko kontribuzioak ordaintzeko abisu kartak Herriko Etxeko idazkariak bidali zituen etxeetara. Bidalitako errezioben diru kopurua, osotara 7.246.183 pezetakoa da eta honela banatuko litzateke; herri lurak erabiltzeagatik 60.026 pezeta; aziendentzat larrak erabiltzeagatik 146.960 pezeta; lizentzi fiskalarengatik berriaz, 1.215.085 pezeta eta lurak erabiltzeagatik 1.156.229 pezeta. Azkenik, hiri-kontribuzioa, *urbana* deitutakoa 4.662.383 pezeta kostatuko da. Etxera bidalitako erreziobo hauek ordaintzeko epea ilbeltzaren 31n akautuko da.

**Idazkari lanpostua**

Maria Jose Larraiotz, izanen da Arantza eta



Elurra agertu da lehen aldiz Mendaurko kaxkoan.

Artxibokoa

Igantziako idazkari lanpostua hemendik aintzineratu beteko duena, probetan bera izan baitagaraile. Dena den, lanpostuaren titularra Pilar Txueka da.

**Igeriketa klaseak Etxalarko Bentan**

Oporraldiaren ondo-

ren, eskolako haurrak eta ez hain haurrak eguneroko erritmora itzuli badira ere, igeriketa ikastaroan hasi dira bigarren zikloko haurrak. Asteazken hiru egunez joanen dira Igantziako haurrekin batera Etxalarko Bentan dagoen igerileku estalira hasi berria

den bigarren hiruhilabetean.

**Batasuna prozesua**

Ezker Abertzaleak segitu beharreko ildoan Arantzan ere eztabaiatzen ari da. Joan den ortziralean, urtarrilaren 19an, egin zen azken bilera Zahar-Txokon.

**Ahozko tradizioa jasotzeko beka**

Iruñeko Maite Lakar eta Nora Iriartek jasoko dute Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak ahozko tradizioa jasotzeko emanen duen beka. Guzura sei egitasmo azaldu ziren eta epaimahaiak hauek baloratzeaz gain, beraien defentsa eta kurrikulumak aztertu zituen beka emateko orduan. Iruñeko bi neskek puntuaziorik altuenak jasozituzten egitasmoan, nahiz kurrikulumean. Bigarren postua Asier Gogortza, Jon Abril eta Xabier Erkiziak eskuratu zuten.

Epaimahai burua Joxe Ramon Amoros, Arantzako alkatea izan zen eta idazkaria castillo Suarez euskara teknikaria. Patxi Salaberri, Paxkual Rekalde, Iñaki Camino eta Gotzone Leonisek osatu zuten epaimahai.

**XATURETXEA**  
  
**JATEIXEA**  
 Tfnoa: 948637027 LESAKA

**ALBERGIA JATEIXEA**  
  
 © 948 634179  
**ARANTZA**

**IRU BIDE**  
  
 Tfnoa: 948 637 127  
**LESAKA**

**LESAKA**

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**Lesaka-Donostia**  
  
**MALDAERREKA, S.L.**  
 24 orduko zerbitzua Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritarra trasladoak  
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

**MINDEGIA TRIKIBAND**  
 ■ EZKONTZAK  
 ■ KINTO BESTAK  
 ■ INAUTERIAK  
 ■ BESTAK  
 © 948451507 / 646298568  
**ITUREN**

**H. Lopez**  
**itargintza**  
 ■ Kafekazioa  
 ■ Gas instalazioak  
 ■ Itargintza industriala  
 ■ Ureztatze sistemak  
 Tel.: 948 45 21 26  
 Mug.: 617 34 99 44  
**NARBARTE**

**SUNBILLA - DONEZTEBE**

# Futbito txapelketa, igande arratsaldetako hitzordua

Hamasei talde ari dira 9. txapelketa honetan, Doneztebeko kiroldegian eta Sunbillako frontoian



Erreka elkarteak antolatutako Baztan-Bidasoako 9. areto-futbol txapelketako partiduak jokatzen ari dira igande arratsaldero Sunbillako frontoian eta Doneztebeko kiroldegian. Hau leitzerakoan, lehendabiziko faseko lehen itzulia akitu izanen da. Aste hondar honetan atsedena izanen dute parte hartzen ari diren hamasei taldeek eta otsailaren 4an ekinen diote bigarren itzulari. Lau taldeko lau multzotan banatu dira partehartzaileak eta multzo bakoitzeko bi lehendabizikoek lortuko dute final laurdenetarako sailkapena. Lehendabiziko fasea akitu ondoren, partida guztiak Doneztebeko kiroldegian jokatuko dira. Final laurdenak martxoaren 4an jokatuko dira, finalerdia martxoaren 11n eta finala eta hirugarren posturako lehia martxoaren 18an.

Hau idazterakoan, borts taldek irabazi dituzte jokatutako bi partiduak: A multzoan Aparan, B multzoan Goizalde eta Titi Ostatuak, C multzoan Basaburuak eta D multzoan Haizegoa ostatuak. Azken hiru txapelketak irabazi dituen Titi Ostatu (argazkian) da talderik golegileena—22—. Donamariako Itxasurak taldeak ez du partidurik irabazi eta gol bakarra sartu du baina, iaz bezala, afiziorik onenari emandako saria lortzeko bidean da.



Ez m n  
u lt  
h r k,  
ur l Kutx k  
2 1  
. .C.  
r st tz n  
l un uk  
zu.

ur l Kutx . .C 2 1 1 k r k l urr n  
Ez m n u l h r k, s r k n k l n m t h u . C r n r k n  
h s . . U z l n e k u r s k l e z t e l k z . C r n l m l k l n  
h s r k u s r r l e l n z n n l n r k l u .  
h r k, n z z z u r l n z n u l k u s r n d l r .



*Amigak*

**SALDIAS**

# Errota zaharra moldatu eta argindarra sortzeko zentral ttikia egin asmo du Udalak

Danbolingo Borda baserrira ere ormigoiezkoko pista egingen da

TTIPI-TTAPA

Saldiasako Udalak egoera penagarrian dagoen errota zaharraren moldaketa lanak hasteko intentzioa du, oraindik gehiago hondatu ez dadin. Etxeak duen baliario historikoa eta garai batean bete zuen funtzio soziala ere kontuan hartu dira lanei ekiteko orduan. Errota lanean ari zenean, arto eta gari asko ehotzen zuen eta bertatik ateratzen zen etekina edo laka, bazkideen artean banatzen



Danbolingo Bordako bidean ormigoia emanen da.

zen. Pedro Urrutia, Saldiasako alkateak errandigunez, «herri guzia

sozio zela esaten ahal da». Beraz, lanak hasi baino lehen, hilabeteko

epea utzi du Udalak jendeak alegazioak aurkezditzan, nahiz eta erro-

tak aspaldian ez du lanik egin. Alkateak aipatutakoaren arabera, «lehenbiziko lana teilatua moldatzea izanen da. Gero, argindarra sortzeko minizentrala egiteko asmoa dugu, baina ikusiko da».

Bestalde, Danbolingo Borda baserrira doan bidea ere moldatzeko asmoa du Udalak. Pistari ormigoia ematen zaio eta Leitzako Pagozelai-Goizabal enpresak egingen ditu lanak, 4.150.000 pezeta-  
ren truke.

**ITUREN-ZUBIETA**

# Mendiko lanak eman dituzte bi herrietako Udalek

Autoen abiadura jausteko bandak jarri dituzte Iturenen

TTIPI-TTAPA

Zubieta eta Iturengo Udalek, beraien mendi batzuetan egin beharreko lanen adjudikazioa egin dute berriki.

Iturengo kasuan, Sunbilleneko Borda eta Mendaurko urtegiaren inguruan egin beharreko oihanberritze eta garbiketako lanak herriko Lasaga anaiek egingen dituzte, 4.718.007 pezeta-  
ren truke.

Zubietan, Txitxillo

inguruan egin beharreko oihanberritze lanak Igantziko Bentako Repoblaciones Etxarte enpresak egingen ditu, 2.821.558 pezeta-  
ren truke.

**Autoen abiadura**

Autoen abiadura jausteko bandak jarri ditu Iturengo Udalak herriko zeharbidean. Autoak abiadura handian igarotzen ziren herri-  
gurutetik eta errepidea eskola eta plaza ondo-



Zubietako labadero zaharra moldatzen ari dira

Zubietako labadero zaharra moldatzeko sei milioitik goitiko aurrekontuaren erdia Bianako Printzea erakundeak ordainduko du. Lanaren zati bat auzolanean egiten ari da, bertze zati bat langabezia zeuden langile batzuk eta bertze bat zurgin eta igeltseroei eman zaie.

tik pasatzen dela kontuan hartu behar da. Guzira lau banda jarri dituzte, herri sarreretan bi eta plaza eta botika inguruan bertzeak.

**Ibintzako saskiaren jabea ez da azaldu**

Iturengo Ibintza kultur

taldeak egindako Eguberrietako zozketako lehenbiziko saskiaren jabea agertu gabe dago oraindik. Saski haundiaren zenbakia, 1.641 da. Jabea Herriko Ostatuan agertu behar da, hilabete akabaila baino lehen. Ez bada inor

agertzen, otsailaren 3an, inauterietako kontuen egunean hain zuzen, berriro ere zozketatuko da.

Bigarren saskia, bizikleta, Letizia Ariztoik eraman zuen eta hirugarrena, Txoko ostatuan bi afari, Tomas Albero-  
k.



# SUNBILLAko Iñauteriak

## Karrozak eta mozorroak



**H**eldu den ostiralean, hilak 26, hasiko dira mi-lurte honetako lehendabiziko iñauteriak Sunbillan, Iturenen, Zubietan... eta ondotik etorriko dira bertze herri aunitzetakoak ere. Herri ttiki batzuetan, ordea, dagoeneko pasatuak dira egun ero hauek.

Bertako nahiz bisitari, lotsak alde batera utzi eta ongi-ongi pasa iñauteriak.

laz indio kuadrila hau agertu zen Sunbillako karriketan, preso hartutako bakero gixajoaren inguruan herio-dantzak dantzatzen.

Zaldua

ILEARRINDEGIA



"ARTAZI"

Ongi pasa iñauterietan!

Ezkontza, bataio  
eta jaunartzetan banatzeko opariak

Gindal ibiltokia, 3 1.D  
Tfnoa: 948 45 08 44 • SUNBILLA

FONDA

o s t a t u a

Donibane karrika  
Tfnoa: 948 45 01 80  
SUNBILLA

MARISOL

JANARIDENDA

Karrika Nagusia, 7 - Tfnoa: 948 45 06 08 - SUNBILLA

## DISFRACES LA MASCARA



- ✂ Iñauterietako mozorroetan den-dena daukagu
- ✂ Era guzietako esagarrien alekairua eta salmenta
- ✂ Festen prestakuntza
- ✂ Makilari profesionalak...

Bazar denda: Abejeras, 6 • Tfnoa: 25 00 04 • Faxa: 25 00 04 • 31007 IRUÑEA

# IRURIBIETA

## OSTATU - JATETXEA

Irur-Iruña bidea, 61,5. Kma  
☎ 948 45 03 99 • SUNBILLA

# Bustitz

## ostatua


Lekueder  
☎ 948 45 01 54  
SUNBILLA

# SANZBERRO

## eraikuntzak

Donibane karrika  
Tfnoa: 948 45 00 95  
SUNBILLA

## Juan Luis Apeztegia



## Garraioak

Leku Eder, 2-1.C • ☎ 948 450778 SUNBILLA  
Mobila: 639-723673

# ARRUTI BOTIKA



Karrika Nagusia ☎ 948 45 02 75 • SUNBILLA

# Sunbillako Ino

**I**gande honetan, azken urteotako inauteriek izan duten arrakasta ikusita, berriz ere mundu bat bilduko da Sunbillako karriketan. Ikusleek, gainera, hotzari aurre egiteko pintxoren bat eta salda bero pixko bat jan-edateko aukera izanen dute seguraski ere.

Igandea inauterietako azken eguna dute Sunbillan, baina aitinetik ere aski asteburu bihurria izaten dute sunbildarrek, ostiral goiz-goizetik hasita:

### Ostiralean, gazteen puxka biltzea eta emakumeen afaria

Goizeko 9etan abiatuko dira inauteriak, Itturburu ostatuan abiatu ere. Hantxe bilduko dira gazteak gosari ederra egiteko. Ondotik, baserrietara joanen dira urteroko eskea egitera. Etxe guzietan ederki hartuko dituzte eskean etorritakoak, dudarik ez, baina bereziki Istolan eta Ezkeneko bordan. Izan ere, eguerdiko 2etan bazkaria egingen dute bi baserri hauetan.

Arratsaldeko 5etan txokolatada bat izanen da Ulibeltzak elkartean haurrentzat, eta



arratseko 8etan Mikel Salaberri musikariaren eskutik dantzan has-teko aukera izanen dute zahar eta gazteek.

Arratseko 10,30ak aldera, gazteek Bustitz ostatuan afalduko du-



# Auterriak 2007



Hona hemen aitzineko urteetako mozorro kuadrila batzuk; "Octubre rojo" urpekuntzia eta bere marinelak, aristokrata familia eta Sunbillako alardea.

Mena

te, eta emakumeek berriz, Ulibeltzak elkartean. Mikel Salaberriren doinuek alaituko dute afalondoa.

**...larunbatean ere goizean goizetik**

Sunbillako inauterriak oso-osorik bizi nahi dituenak ez du atse-denerako asti handirik izanen. Larunbatean gazteak goizeko 9etarako Iruribietan bilduko dira gosaltzeko, eta ondotik herrian barna aterako dira eskean. Eguerd-

an Fondan bazkalduko dute, eta arratsaldeko 8,30etan mozorroen dantzaldia izanen da. Arratsean Elor-Txuri jatetxean afalduko dute.

**Igandean: 11,30etan desfilea**

Aitzineko bi egunetan bezalaxe, goizeko 9etan gosaltzeko bilduko dira sunbildarrak, oraingotan Bustitz ostatuan. Herria bisitariz beteko da laster, eta karrozak hartuta herrian barna desfilean ibiliko dira herritar mozorrotuak. Aitzineko hilabeteetan egindako lan guziaz erakusteko ordua da, karroza horiek ez baitira egun batetik bertzerera prestatzen. Eguerdiko 11,30etan abiatuko da desfilea.

Hainbertze ajari eta erokeri egin ondotik azken otordua egiteko Ulibeltzak elkartera joko dute mozorroek, eta bazkalondoa Jalisko Band taldearen musika izanen dute giroa alaitu eta inauterriak ongi akautzeko.



Zernahi pertsonaia ikusten ahal da Sunbillako inauterrietan, gangsterrak, hippyak, baita ipuinetako protagonistak ere: horra hor Edurnezuri eta zazpi ipotxak.

Argazkiak: ZALDUA eta Asier G.



## GAZMENDI eraikuntzak

SAN JUAN KARRIKA • GURE BORDA  
SUNBILLA

Tfnoa: 948 450130 - 948 451666

## IBARBURU ERRETEGIA



*Brasan  
egindako  
arrain eta  
haragietan  
espezializatua*

**Aupa Sunbillako inauterriak!**

Iruña-Irun errep, 59.km • © 948 45 17 62  
DONEZTEBE

## ESPELOSIN ERAIKUNTZAK

Auloa Baserria  
Tfnoa: 948 45 07 73  
SUNBILLA

## Maria Jesus HARATEGIA

Karrika Nagusia, 11  
Tfnoa: 948 45 15 30  
SUNBILLA

# Ituren, Zubieta eta Aurtizko Iñauteriak

## Mozorro eta pulunpa saltsa



Astelen eguerdian Zubietako joaldunek Aurtiz eta Iturengoei eginen diete bisita.

Mena

**A**urten ere mozorren, joaldunen eta bisitarien artean saltsa ederra izanen da Ituren, Zubieta eta Aurtizko iñauterietan.

### Ortzegunean hasi

Ortzegun honetan hasiko dira iñauteriak Iturenen. Ilunabarrean 8 lagun –6 joaldun, zareduna eta ardoa eramaten duena– juntatu eta etxez etxe ibiltzen dira puxka bilduz. Gero afaria egiten dute elkartean.

Larunbatean afaria Aurtizko elkartean egiten dute, eta igandean bazkaria Iturengoan.

### Astlehena eta astearta egun haundiak

Astlehenean goizean goiz gosaldu ondok pulunpak prest izanen dituzte Aurtiz, Zubieta eta

Iturenen. Eguerdiko 2,30etarako zubitarrak Aurtizera joanen dira eta karrketan barna ibili eta gero salda eta arraultz egosia emanen zaie elkartean. Iturenera abiatuko dira gero, Lasagan Iturengo joaldunekin elkartzeko. Iturenen elkarrekin bertze ikuskizun bat eman ondok bakoitza bere herrira bueltatzen da bazkaltzera.

Asteartean iturendarrek bisita itzuliko diete Zubietakoei, Aurtizko joaldunekin bidean elkartu ondok. Biharamonean bazkaldu eta afaldu elkarrekin egiten dute elkartean.

### Kontuen eguna

Aste honetan otorduz otordu eta tragoz trago ibiliko dira Ituren, Aurtiz eta Zubietako bizilagunak, sakelari sobera erreparatu gabe. Diru kontuak erreparatzeko otsailaren 5ean bilduko dira afari baten inguruan.

## ETXANDI TXOKO j a t e t x e a

Bazkari, afari eta gosariak

Ongi pasatu iñauterietan

ITUREN • ☎ 948 450 491



Ortziral gauetz, larunbat eta igandetan irekia  
Besta egunetan eta bezperetan irekia

Iñauterietan egunero zabalik

☎ 948 450410 • Ituren

## PATXI mozorroak

- Talde edo banakako mozorroak
- Telak eta osagarriak
- 1.400 ptatik aurrera ofertak ordainketan
- Mozorroak 0 hilabetetik aurrerakoentzat
- Ezkongaiendako broma artikulua

Larraotxa k. 2 • OLAZTI  
☎ 948 468718 • 619 851116

Teodoro Ochoa de Alda, 15  
Vistabella • BARAÑAIN  
Nafarroako ospitalaren atzean  
☎ 676 383 874

## ERRANDONEA

O S T A T U A

Iñauterietan giro paregabea

☎ 948 450216 - ZUBIETA



Taberna  
logelak  
jantokia



☎ 948 450217

**Berezitasunak:**

Arrain eta mariskoak parrillan

**GOIZUETA**

# Burugorriko pistaren bigarren fasea 29 milioi kostako da

Aurten ez dira udal tasa eta zergak igoko

**ESTEBAN AROTZENA**

Bere garaian aurreikusi zen bezala, Burugorriko pistaren zola-berritzearen bigarren faseari ondorengo astetan ekinen zaio. Iruñeko *Excavaciones y Reforestaciones, S.L.* lantegiak egingen du ia 29 milioi pezetako aurrekontua duen lan hau.

Burugorri izena daraman bidearen konponketaren lehenengo puska, zortzi kilometro, orain dela urtebete egin zen. Orain egingen direnak, orduan utzitako sei kilometroak dira. Lan hauek bukatzen direne-

an, egoera ederrean geldituko dira herriko mendi aberats eta emankorrenak lotzen dituen zirkuitoa, Hernaniko erre-pidetik hasi eta Burugorri, Udi, Frantzesan gurutzea, Unalbide, Zumarreneko Harrobia eta Olatxo artekoa, alegia.

## Aurten ez dira udal tasak eta zergak igoko

Urteko azkeneko batzarrean korporazioak erabaki zuenez, udal tasak eta zergak ez dute igoerarik izanen 2001. urtean. Aurreratu genezake, beraz, zaborren tasa 3.720 pezetakoa iza-

nen dela, etxebizitza arruntetako eta 7.435 pezetakoa industrialak. Urarena, berriz, 2.835 pezetakoa eta 5.670 pezetakoa izanen da hurrenez hurren.

## Batasuna prozesua

Ezker abertzalearen berregituratzea helburu duen Batasuna prozesuari bukaera eman zaio herrian partehartze polita izan duten hainbat batzar burutu ondoren. Azkenekoa, hil honen 13an izan zen, bozketa eta guzi. Bateginik ponentziaren aldekoak izan dira Goizuetako ia botu guziak.



## Petxiko Bordako teilatua eraman du haizeak

Haizetearen eraginak haundi xamarrek izan dira gure herrian ere, begiratu bestela ze piura gelditu zitzaion Petxiko Bordari teilatua eramandakoan.

Arg.: Laxaro

**ARES**

# Eskolako patioa berritzeko lau milioi terdiko aurrekontua

Hezetasunari irtenbidea eman nahi zaio

**JUANA MARI SAIZAR**

Eskolako atzeko patioa berritu dute, brearekin zolaberrituz. Oraindik berde koloreaz margotzea falta zaio. Pareta txukundu dute eta bi metro sarea jarri diote. Eskolako hezetasunari irtenbidea bilatzen saiatu dira, erreka hazitzen denean, soto-

an ura sartzen baita. Drenajereko hodi batzuen bitartez, ur hori berriro errekarara bideratuko da. Lan honen aurrekontua lau milioi terdiko pezeta ingurukoa da.

## 80 milioiko aurrekontua izan zuen iaz Udalak

Azken udal batzarrean, joan den urteko

aurrekontua onartu zen eta 80 milioi pezetakoa izan da.

Horietatik 60 milioi inbertsioetan joan dira. Gehien bat Astomela errekan egindako lanetan gastatu da dirua. Erreka garbitu egin da, erreka igerilekua txukundu da eta arrainak pasatzeko igarobidea egin da presan. Horretaz



## Astomela erreka hazten denean, hezetasun arazoak izan dituzte orain arte eskolan.

Artxibokoa

gain, eskolan lan batzuk ere egin dira.

## Garbiketa lanak Uli eta Merkuko inguruetan

Uli eta Merkuko

mendi komunaletan garbiketa lanak egin behar dira, entresaka eginez. Lanen adjudikazioa berehala egingo da eta aurrekontua 700.000 pezetakoa da.

**LEITZA**

# Ilbeltzaren 27tik 30era Iñauteriak ospatuko dira

Larunbatean herrian eta astelehen eta asteartean baserri baserri ibiliko dira eskean

**JOSEBA AZPIROZ**

Larunbatean, ilbeltzak 27, atsoguratuen eskea eginen da arratsaldeko 3,30etan herriko etxetan, gisa honetara Udalak, Kultur Taldeak, Aurrerak eta Guraso Elkarteak antolatutako iñauteriei hasiera emanez. Lau-bost talde aterako dira, txistulari, gaitero eta trikitilarien laguntzarekin. Arratsaldeko 6,30etan Goizueta eta Leitzako eskolarteko pilota partiduak. 9,30etan herri afaria eskolako jantokian, Aurrerak antolatua.

Igande eguerdian kalejira izanen da Incansables txarangarekin.

2,30etan bazkaria eskolako jantokian. 5etan tren ttikia aterako da eta ordubete beranduago kalejira Incansables txarangarekin. Arratsean eta gauean Mindegia anai arrebak Karrapean ariko dira eta txaranga kaletan.

Astelehen goizean, Arkixkil, Gorritzaran, Erreka eta Sakulu auzoetako baserrietara jonen dira eskean. Arratsaldeko 4etatik 6etara Kulk taldearekin umeentzat jokoak izanen dira, Kultur taldeak antolatuta. Arratsean eta gauean Xapo taldearekin dantzaldia izanen da karrapean. Tartean, puske biltzailak afaria izanen dute



**Heldu da atsoguratuen besta!**

Artxibokoa

Aurrera elkartearen Txaranga, berriz ere, kale kale ibiliko da.

Asteartea goizean ere baserrietara joko dute puske biltzera, oraingoan Erasote auzora. 11,30etan Incansables txarangak eskola bisitatuko du. Arratsaldeko 3etan kalejira eginen da eskolako ikasle, irakasle, guraso eta nahi duen guziarekin, hori bai, denak atsoguratuak joatea eskatzen da. Ondoren txokolate beroa izanen da Guraso Elkartearen

eskutik. Aurreko arratsetan bezalaxe, 7,30etatik 9etara eta 11,30etatik goizaldeko 2,30etara dantzaldia izanen da Karrapean Xapo taldearekin eta txaranga kale kale ibiliko da.

**El Salvadorrekin elkartasuna**

Lurrikarak eragin dako egoeraren ondorioz, El Salvador larrialdi egoeran aukitzen da. Hori dela eta, Udalak herritarrei elkartasunezko larrialdi deia lu-

zatu die, kaltetuei baliabide ekonomikoak berehala iristeko. Alkaterearen bandoan aipatzen denez, «*momentuz, euskal gizartearen laguntza soilik ekonomikoa izatea nahi da eta horretarako irekiak dauden kontuak erabili behar dira*».

**gaztelu scl**  
**iturgintza**  
kalefakzioa saneamendua gasa  
© 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

**TORREA TABERNA**  
*Eskeat presoak etxera*  
*Itaurotutako menua eta borroka*  
Mikel Deuna | • © 948 610909 • LEITZA

**MUSUNZAR TABERNA • HOSTALA**  
© 948 510607-948 510475  
Elbarren 14 • LEITZA

**GAZTAÑAGA TABERNA**  
**BOKATAK eta PINTXOAK**  
Elbarren, 55 ☎ 948 610708 • LEITZA

**ADUR TABERNA**  
• OGi EGIN BERRI-BERRIAREKIN EGINDAKO OTARTEKOAK  
• KAXUELAK  
• ERA ASKOTAKO PINTXOAK (Rabak, olagarroa, ziztorra...)  
Elbarren, 16 ☎ 948 610864 • LEITZA

**Leitza**  
**TABERNA**  
Huarte Gotzaia 19  
© 948 510352  
**LEITZA**

**URDAZUBI - ZUGARRAMURDI**

# Fernando Arburua Iruñeko presondegira ekarri dute egunotan

Bertzalde, hiru hilabetez ospitalean larri egon ondotik, etxean da Maite

MARGARI ETA KORO

Kadizko presondegian zegoen Fernando Arburua Iruñera ekarri dute egun hauetan. Berriki hil zaion arre-baren elizkizunetara joateko dela eta momentuan Iruñean egonen da. Orain famili eta lagunek profitatzen ari dute berarekin ahal bezain bat egoteko.



**Fernando Arburua preso, Kadizetik Iruñera ekarri dute, bere arre-baren heriotza dela eta.**

**Maite etxean da berriz ere**

Hiru hilabetez koman egon ondotik, zorionez Maite etxean daukagu. Gan den irailaren 27an auto istripu baten ondotik kolpe larria jaso zuen buruan eta, aipatu dugun bezala, koman denbora aunitz eman zuen. Pittakapittaka ernatzen hasi zen eta gaur egun egunero Iruñera erreabilitazioa egitera joan behar badu

ere, bedenik etxean famili eta lagunen artean dago. Meritu handia izan du orain dagoen bezala sendatzeko eta bertze hainbertze beharko du hemendik aitzina ere. Beraz, animo eta indar aunitz eskeintzen dioz-kagu eta ea bestetan be-



**Hiru hilabetez koman egon ondotik, berriz ere herrian da Maite. Egunero erreabilitazioa egitera Iruñera gaten baldin bada ere, famili eta lagunen artean dago.**

rak hainbertze maite duen jota dantzatzen ikusten dugun.

**Bi udaletako idazkari lanpostua**

Duela urte pare bat edo, aitzineko idazkariak erretreta hartu zue-netik behin behineko idazkaria ginuen Urda-

zubi eta Zugarramurdiko Udaletxeetan. Orain, urtarrilaren 1eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean lanpostu hori behin betikoz betetzeko probetarako deialdia egin da. Izen emaria otsailaren 1a baino lehen egin behar da Urdazubiko Udalaren

erregistroan eta baldintzen artean Zuzenbidean lizentziatua izatea eta euskaraz jakitea da. Froga egin ondotik eta lanpostua lortu ez baina probak gainditu dituztenekin zerrenda eginen da, hortik ere kontratatu ahal izateko.

**Eskolako urte hasierako ekitaldiak**

Eskoletatik ere berriren batzuk baditugu: urtarrilaren 16 eta 18an Xorroxin Irratitik saio pullit batzuk eskeini zizuten. 19an, berriz, Iruñerat ateraldi bat izan zuten: Eskirozko nekazal etxea bisitatu zuten eta arratsaldean «Peke-lan»en ederki izerditu ziren. Eta azkenik 22an Joxe Mari Iturralde idazleak hitzaldi bat eskeini zien eta hitzaldiaren ondotik ikasleek berarekin solas egiteko aukera izan zuten.

**BAZTAN**

# Aitzinako inauteak karrikaratuko ditu Jo ala Jo kultur elkarteak

Hartzaren iratzartzea egingen dute otsailaren 3an Basaburuan barna

TTIPI-TTAPA

Jo ala Jo kultur elkarteak, Erratzuko elkartearen eta Basaburuako gazteen laguntzaz antolatutako Baztan Inaute Aroan egitarauaren ekitaldi berri bat ospatuko da otsailaren

3an. Atsaldez, Basaburuan barna, Hartz, hartazain, Jantzilo eta mozorroren agerraldia eskainiko da, Hartzaren iratzartzea iragarritz. Gero, afaria izanen da Anizko elkartearen eta mozorroren gaupasa.

Otsailaren 10ean

Gizakunde ospatuko dute, Arizkongo elkartearen mozorroren afariarekin. Gauerdian puskebiltzea eta mamuru uxatzea egingen dute, Arizkundik Erratzurat bide zaharretik.

Otsailaren 17an, azkenik, Emakunde os-

patuko da. Goizez, Elizondoko karriketaren mozorro xurien puskebiltzea egingen dute. Elbeten bazkaldu ondotik, atsaldez Elizondon mozorro beltz eta xuriak agertuko dira, bazterrak inarrosiz. Ondotik, Jantzilore erreko dute.



**BAZTAN**

# Ana Mari Marin Elizondoko alkate izateko prest agertu da

Lehen ere, kargua bete zuen lehen emakumea izan zen

TTIPI-TTAPA

Bertze inor kargua hartzeko gogorik ez duela ikusiz, Ana Mari Marin margolari elizondarrak herriko alkate izateko prest azaldu da. Lehendik ere alkatea izana da Marin, 1975-76 eta 1995-96 urteetan. Kargua bete zuen lehendabiziko emakumea izan zen. «*Nere intentzio bakarra, lau mende dituen alkate-jurado kargua ez galtzea da*» erran zuen bere erabakiaren berri ematean. Orai, Baztango alkateak bertze bazzarre bat deitu behar du eta, aitzineko bietan bezala, inor aurkezten ez bada, Ana Mari Marin izanen da alkate. «*Junta Generalean oinarritutako administrazio sistema arras ona da—dio—baina hori bai, herriek autonomia eta diru gehiago izan behar harko lukete. Elizondok, 3.000 biztante inguru-rekin milioi bat jasotzen du Balleko Udaletik eta hori irriemangarria da*». Dena den, Elizondok duen ondarea man-

tentzen saiatuko dela azpimarratu du.

### Erratzuko saskiak

Erratzuko kultur elkarteak “del niño” loteriarekin batera Erratzuko hiru ostatueta eta Izpegiko bentetan zozketan paratutako sei saskiak banatu egin dira. Bat Gorostapolora joan da, bertzea Iñarbiler, hirugarren bat Baigorri, laugarrena Iruritar eta bertze biak Erratzun berean gelditu dira.



### Baztan Ikastolako krosa

Baztan Ikastolak Eguberri inguruan antolatzen dituen ekitaldien artean Eguberriko Krosa egin zen abenduaren 17an. 132 korrikalarik hartu zuten parte eta guzkiek diploma eta saria eskuratu zituzten. Indarrak berritzeko, Guraso Elkarteak gosaria eman zien.



Argazkia: Baztan Ikastola

## Lehendabiziko literatur solasaldia burutu da larunbat honetan Arizkunenean

Jo ala Jo eta Erratzuko kultur elkarteek, Euskal Idazleen Elkarte, Baztango Udala eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz antolatutako lehen literatur solasaldia burutu da larunbat honetan. Paddy Rekalde idazleak «Whiskey koloreko gauak» bere liburuari buruz aritu zen Arizkunenea Kultur Etxean. Bi elkarteek prestatutako sei literatur solasaldietan lehenbizikoa izan da. Martxoaren 17an, Julen Gabiria, «Connemara bihotzean» liburuari buruz ariko da. Maiatzaren 19an, Ur Apalategiren

«Gauak eta hiriak» izanen da solasgai. Buruilaren 15ean Harkaitz Cano «Pasaia Blues» liburuaz ariko da. Azaroaren 17an Jon Alonsoren «Cammembert helburua» liburuaz izanen da aipagai eta abenduaren 15ean, Jon Arretxeren «Zazpi kolore».

Solasaldi guztiak Arizkunenea Kultur Etxean egingen dira, atsaldeko 5etan. Aipatu behar Erratzuko Kultur Elkarteak mintzaldi hauetan interesa paratzen duten elkarte kideei liburuak bereganatzeko laguntza emanen diela.



Literatur tailerraren kartela.

**Gierreserena**  
**OSTATU - JATETXEA**  
 Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa  
 Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA  
**Gazteendako era guzietako arropa**  
**Lanerako arropa**

*Eskisaroi*  
*jatetxea*  
 Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013  
**ELIZONDO**



**BAZTAN**

# Urtebetez bizirik mantendu dute izokin eme bat Oronozko haztegian

Horretarako, jaten *erakutsi* behar izan diote teknikariek

TTIPI-TTAPA

Oronozko arrain haztegia izokin eme bat urtebete baino gehiago bizirik mantentzea eta arraultzeak errutea lortu dute. Izokina ezagutzen ez duenari gauza normala irudituko zaio, akaso, baina kontuan hartu behar da izokinek jateari uzten diotela itsasotik errekarara pasatzen direnean. Beraz, Oronozko haztegioko teknikoei jaten *erakutsi* egin behar izan diote izokinari.

Teknika hau Irlandan egiten hasi ziren, duela urte batzuk eta lehenbizikoa aldia da Nafarroan egiten dela. Honek, izokin emeen ugalkortasuna gehiago aprobetxatzen da, errunaldi bat baino gehiago egiten baitute. Errunaldiaren ondotik errekarara bueltatuko balitz, seguru aski itsasora bueltatu baino lehen hilen zen izokina.

Nafarroaren kasuan, itsasoa negu bat baino gehiago igaro duten izokinaren ugalkortasuna segurtatu nahi da, Bida-



Oronozko haztegia urtebetez egon den izokina arraultzeak erruten.

soako izokinaren %10-20a bertzerik ez baita adin horretakoa. Bersteak negu bakarreko izokinak dira, tikiagiak.

Izokinak naturan harapatuko luketeen egoera berdintsuan kontzen dira haztegian, baina eritasunak ez hartzeko tratamendu eta zaintze berezia jasotzen dute. Baina lanik zailena, berriez jaten hastea da, itsa-

sora bueltatu izanen babilira bezala.

## HAMALAU HILABETE OROZOEN

Oronozko haztegia egon den izokina 1999ko azaroaren 25ean hartu zuten Berako nasa parean. Ez zuen seinalerik, baina negu bat baino gehiagoko izokina zela ikusi zuten, beraz, bera sortutako errekarara itzuli baino lehen

Terranova eta Groenlandian barna ibilia izanen zen. Urte hortako abenduan 6.400 arraultze errun zituen eta gero, ez zuten errekarara bueltatu. 2000ko urtarrean jaten *erakusten* hasi ziren eta hilabete beranduago jaten hasi zen. Bere zikloari segituz, gan den urteko irailrean jateari utzi zion eta ilbeltzaren 4an, 8.714 arraultze errun zituen.

▼ flash



### Erratzuko "amerikanoen" besta

Apirilaren 15ean, igandearekin, eguerdiko 12etan ospatuko dute beraien besta Estatu Batuetan bizidiren erratzuarrek. Eguerdiko 12etan dute hitzordua, San Franciscoko Basque Cultural Center-en. Helduek 27 dolar ordaindu beharko dituzte eta haurrek 8 dolar. Izena emateko, telefono batzuetan eta honako helbide elektronikoan egiten ahal da: danvicky@aol.com

### Ezkundu gabeko bikoteen erregistroa

Bikote batek egingdako eskariarekin bat eginez, ezkondu gabeko bikoteen erregistroa irekitzea erabaki du Balleko Udalak ahobatez. Erregistroaren funtzionamendua arautuko duen ordenantza ere prestatuko dute.



**ZUBIRIA  
MINDEGIAK**

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)  
Faxa: 948 581274



## LARRALDEA SAGARDOTEGIA

- Telleri auzian, Lekarozko elizaren eskuinetik hartu eta 1,5 kmtara.
- Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua.
- 100 lagunendako lekua jarrita.
- Aparkalekua 40 autorentzat eta mikrobusentzat ere tokia badago.

# Ihauteriei buruzko mintzaldi interesgarria antolatu du Gaztetxeak otsailaren 3an

Oinezkoendako bidexkak moldatu dituzte Plaziolako bide bazterretan

ANA MARI ETA FRED

Negua, bertzeak bertze ihauterien sasoina dugu. Herrikoak ere urrats haundiz hurbiltzen ari direnez, Gaztetxeak mintzaldi interesgarria antolatzen du heldu den otsailaren 3ko. Alabainan, Thierry Truffaut etnologo ospetsuak xehetasunak emanen ditu Euskal Herriko eta, berezikiago, Sarako Ihauterietaz. Aspaldiko ohidura huren jatorria eta gure herrian izan diren berezitasak azalduko ditu Euskal Herriko kanpo bizi den ikerlariak. Thierry Truffaut etnologian eta folkloreak aditua da, eta bertze gai ainitzen artean, Euskal Herriko ihauteriak, bestak eta ohidurak aztertuko ditu. Liburu, filme eta erakusketa batzuk eginak ditu ere, ihauterien gaiaren inguruan.

Bertzalde, Gaztetxeak jakinarazten du aurtengo ihauteriak otsailaren azken aste honetan, 24 eta 25ean ospatuko direla. Hasi mozorroak josten!



Bazterbideak berriitu eta gauaz ibiltzeko argiak jarri dituzte.

## Bidexkak moldatzeko 300.000 libera

Azken urteotan bezala, Herriko Etxeak plazako inguruak apaintzen segitzen du. Urte hondar huntako obra ikusgarrienak Plaziolako bide bazterretan eginak izan dira, bereziki oinezkoen bidexkak moldatu baitituzte Portuatik goiti. Obrek 300.000 libera inguru kostatu dute eta bazterbideak berritzeaz gain, gauaz ibili nahi dutenentzat (ba omen dire!)

argi tikiak eta dena prestatuak dituzte.

## Errugbi mus txapelketa

Heldu den otsailaren 3an, larunbata, arratsaldeko 3etan Sarako Izarra errugbi taldeak bere bosgarren mus txapelketa antolatuko du Omordian. Txapelketa hau denentzat idekia dago eta egun eta toki berean 100 liberaren truke afari bat ospatuko da. Izenak hil huren 27a baino lehen eman behar dire Martin Goienetxeri

deituz 0559542745 edo 0559542374 telefono-entara deituz, arratseko 8etatik goiti.

## Herriko Etxeko mus txapelketa

Otsailaren 9an, ortzirala, Herriko Etxeko edantegiko mus txapelketa hasiko da. Otsailaren 3a arte izena ematen ahal da ostatura joanez edo 0559542519 telefonora deituz. Partehartzaile bakoitzak 60 libera ordaindu behar du. Frantziako mus txapelketaren kanpora-

ketak ere hilabete huren 26an bururatuko dire ostatu berean.

## Errugbiko emaitzak

Urtarrilaren 7tik goiti, Sarako errugbilariak bigarren saileko partidua hasi dituzte. Saratarrak bertze borts taldeekin daude multzoan: Euskal Herriko, Azkaine; Biarnotik, Puyoo; eta Landesetatik Pouillon, Lit et Mix eta Saint Julien. Orain arte Basurdeek jokatu dituzten partidak kanpoan izan dira eta biak galdu egin dituzte. Lehendabizikoa Pouillonon kontra erori ziren bi puntutik bakarrik (12-10). Bigarrena, Saint Julienekoek 11 eta 6 menderatu zituzten saratarrak. Aipatzen ahal da erreserba taldeak bi partidua irabazi zituztela: 9-8 lehenbizikoa eta 32-0 bigarrena.

Pasa den igandean etxean Puyooko taldearen kontra aritu ziren eta asteburu huntan azkaindarren aurka arituko dira. Partidu huren ondotik hamabortzetik behin aritu beharrak dira apirila arte.

**BAZTANDARRA KOOPERATIBA**  
Baserritarren zerbitzurat  
Tel: 948 453310 - Faxa: 948 453375  
Ordoki Auzoa • ARIZKUN

**ttipi-ttapa** Zure publizitatea etxe xoko guzietan  
7.100 harpidedun  
24.000 irakurle  
☎ 948 63 11 88

Baztanen... **24 orduko zerbitzua** Eta Iruñean...

**ESTHER FUNERARIA**  
Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...

**IRACHE TANATORIOA**  
Iratxe Monastegia, 60  
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • ARIZKUN  
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • NARBARTE  
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • ELIZONDO

**BERRINO ETXEN EDINETEARRA**

**ARMUA Jatetxea**  
Zugarramurdiok karretera 3. Km  
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

**SENPERE**

# Herrian Internet-en sartzea gero eta errexagoa da 'Cyber espace' sortu baita

Eskola girixtinoko haurrek egoitza berrian ikasten dute

FRANCK DOLOSOR

«Cyber espace» internetegiak bere atek zabaldu ditu eguberri aintzin eta hemendik goiti sarean sartu nahi duenak aski du harat hurbiltzea. Igandetan salbu, egunero idekia da 9,30ak eta eguerdi artean goizez eta arratsaldez 3etarik 6,30ak arte, baita larunbatetan ere 11ak eta 6ak artean.

Gaurko egunean, 28 kide biltzen ditu elkar-teak baina erran gabe doa den-deneri idekia dela. Internet baliatzeaz gain, informatika ikastaroak ematen dituzte Aranategiaren gibe-leko partean kokatzen den egoitza hortan. «Pot d'échanges» batasunak pentsatu du halako aktibitatea herrian sortzea, eta bistan da ideia zinez ona baita bertze batzuen laguntza ere izan du, bertzeak bertze «Ez da musika» taldearena.

Dirulaguntza publikoak eskuratu baditu, «Cyber espace»-k espero du laguntza gehiago izatea, proiektu andana baitute buruan horko ki-

deek. Egoitza hau bi-ziagoa izateko gisan, gazte lanpostu baten sortzeko xedea bada.

## Hamabigarren Korrika martxoaren 29an abiatuko da Gasteizen

Hamabigarren Korrika martxoaren 29an aterako da Gasteizetik, apirilaren 8an Baionan bururatzeko duela hamar urte bezala. Aurten, 20 urte betetzen ditu AEKk antolatzen duen eskuararen aldeko lasterkaldi famatuak. «Mundu bat euskarara bildu» da aldi huntako leloa eta omendua Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartearen izanena da. Euskararen alde egin duen lana eskertuko zaio.

Aurtengo musika Irungo Fermin Muguruza kantari ezagunak egin du. Senperen hamabigarren Korrika noiz pasako den xuxen ez da oraino erabaki baina xehetasun guztiak izanen dituzue ondoko TTPI-TTAPAN. Anartean, hasi janeko entrenatzen... Urte berri on!



## San Josep eskolako egoitza berria zabaldu da

Gan den abenduaren 17an inauguratu zen San Josep eskolako egoitza berria, lehenago seroaren etxea zena. Ikasle eta erakasleek eguberriko opari gisa hartu dituzte ikasgela berriak. Idekitze egunean jende ainitz bildu zen argazkietan ikusten ahal den bezala.

Argazkia: Studio de la Nivelles

**RESTAURANT MIGUEL**

**Ongi zaindutako sukaldaritzak**  
**Menuak aukeran**

**MIGUEL JATETXEA**  
Ibardingo Lepoa  
☎ 948 631209

**ORDOKI LIKOREAK**  
**ERRETEGIA**

Tel.: 948453410  
Fax: 948453378  
ARIZKUN

Parrilan egindako haragi eta arrainak

**BYRKAITZEA**  
ostatu erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km.  
☎ 948 599280 • URDAZUBI

**ttipi-ttapa internet**

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>  
E-mail: [ttipi-ttapa@topagunea.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.com)

## EZKONTZAK

**Urko Arotzena Muxika** eta **Miren Gotzone Sestorain Zabaleta**, Oiartzun eta Leitzakoa, urtarrilaren 13an.  
**Jean Marc Larrondo Lavignasse** eta **Ainhoa Senper Matzizior**, Bera eta Baionakoa, abenduaren 23an.

## JAIOTZAK

**Josebiñe Agirre Soto**, Zugarramurdikoa, abenduaren 11n.  
**Imanol Telletxea Perugorria**, Etxalarakoa, urtarrilaren 4ean.  
**Ion Pacheco Dozagarat**, Elbetekoa, urtarrilaren 8an.  
**Elorri Larzabal**, Sarakoa, urtarrilaren 1ean.

## HERIOTZAK

**Severiano Labaien Eraso**, Urdazubikoa, abenduaren 14an, 86 urte.  
**Valentin Goienetxe Danboriena**, Etxalarkoa, urtarrilaren 8an, 69 urte.  
**Maria Soledad Oartzabal Plazas**, Berakoa, urtarrilaren 1ean, 90 urte.  
**Mariano Buenaventura Izeta Elizalde**, Elizondokoa, urtarrilaren 8an, 85 urte.  
**Juana Garaikoetxea Mendiburu**, Amaiurkoa, urtarrilaren 9an, 93 urte.  
**Jose Aleman Sukilbide**, Zigakoa, urtarrilaren 11n, 93 urte.  
**Felipe Lizarraga Larraza**, Elizondon, urtarrilaren 12an, 71 urte.  
**Maria Luisa Lazkano Larrea**, Leitzakoa, urtarrilaren 1ean, 91 urte.  
**Juan Javier Erbiti Arregi**, Leitzakoa, urtarrilaren 11n, 66 urte.  
**Petra Eneverreaga Ugalde**, Doneztebekoa, urtarrilaren 6an, 94 urte.  
**Esteban Andueza Elizalde**, Berakoa, abenduaren 22an, 79 urte.  
**Bernardina Barberón del Puerto**, Berakoa, urtarrilaren 6an, 96 urte.  
**Erramun Ichuribehere**, Sarakoa, ilbeltzaren 12an, 85 urte.  
**Joaquina Etxegia Lasarte**, Beintza-Labaiengoa, urtarrilaren 15ean, 83 urte.

**ESKELAK eta URTEMUGA OROIGARRIAK  
 TTIPI-TTAPA TELEBISTA eta ALDIZKARIAN**

 **948 63 11 88**

## PARAPSIKOLOGO • HIPNOLOGO KLINIKOA

**D. NICOLAS MENDIBERRI ALEMAN DIPLOMATUA**

### • ERLAJAZIO SESIOAK

**HELBURUA:** Zure osasun fisikoa eta mentala hobetzea. Zure burua lasaitzen eta, hainbertze aldiz arazoak sortzen dizkigun nerbio sistema kontrolatzen ikasiko duzu. Honela, eguneroko bizitzan egonkortasun eta harmonia handiagoa lortuko duzu.

Paularena, 31 - 2. A • 31700 ELIZONDO  
 Tel: 948 580235 (erantzungailua) • 639 012085 (sakelekoa)



**Mariano IZETA  
 ELIZALDE**

*Urak dakarrena  
 urak daroa  
 zuk emandakoa  
 gurekin geldituko da.*

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA  
 Elizondon, 2001eko ilbeltzaren 8an.

# Udaberrian abiatuko da Bortzirietako Martiko-Shisha Pangma mendi espedizioa

- Berako Pikabea anaiak, Zubieta eta Kortarekin batera Zestoako lagun bat joanen da
- 8.046 metroko altuera du mendiak eta 6 milioiko aurrekontua espedizioak

AITOR AROTZENA

Berako Luis Mari eta Patxi Pikabea, Sabino Korta eta Jabier Zubietak eta Zestoako Andoni Zulaikak osatuko dute udaberri honetan abiatuko den Martiko-Shisha Pangma mendi espedizioa. Mendizale hauen helburu nagusia, 8.046 metroko altuera duen Shisha Pangma Tibeteko mendia hegomendebaldeko paretan barna alpino eran goitzea da. Urtarrilaren 12an Martiko lantegian egindako aurkezpenan, Jabier Zubieta espedizio kideak erran zuenez, «*horrela bide honetatik gailurra zanpatzen dugun lehendabiziko mendizale nafarrek izanen gara*».

Bertzetik, mendi honen dituen zailtasun teknikoak gisako espedizio gehiago egiteko esperientzia eta konfiantza emanen dietela usate mendizaleek.

Gogoratuko duzen bezala, lau mendizale beratarrek Gasherbrum-II espedizioa osatu zuten duela kasik bi urte, Ana Larretxea arantzarrarekin batera. Beraz, bigarren zortzi milakoa izanen da lauentzat. Andoni Zulaika zestoarrarentzat, berriz, lehen zortzi milakoa izanen da, nahiz eta mendian esperientzia zabal duen.

## HILABETEKO ESPEDIZIOA ETA KASIK 6 MILIOIKO AURREKONTUA

Espedizioak 30 edo 40 egun inguruko irau-



Patxi Pikabea, Sabino Korta, Jabier Zubieta eta Loro Pikabea beratarrek Shisha Pangma mendia hegomendebaldeko paretan barna alpino eran igaiten saiatuko dira, Andoni Zulaika zestoarrarekin batera.

pena izanen du eta 5.750.000 aurrekontua du. Lehenik, Madrilgo aireportutik Katmandura joanen dira, Nepaleko hiriburura. Azken orduko erosketak egin eta dena prest edukitzean Nepal eta Tibet arteko mugan dagoen Kodari herrira hurbilduko dira. Hortik Nya-

lan herriraino dagoen bidea autobusez egingen dute. Hiru egunez oinez ibili ondotik, Shisha Pangmaren magalean, oinarritziko kanpamentua izanen dena jarriko dute, 5.250 metrotan.

Orain arte, Euskal Herriko bi espedizio bakarrik saiatu dira Hego-

barrena gailurra egiten. Lehendabizikoa, 1996. urtean, Juanito Oiarzabal, Juan Vallejo, Luis Angel Rojo "Gorri", Josu Bereziartua, Alberto eta Felix Iñurrategi eta Jose Luis Zuloaga "Zulu"k osatua. Azken mendizale honek bizia galdu zuen espedizio hartan.

## Shisha Pangma: Zortzi milako ezezaguna

Shisha Pangma mendiak, historia alpino berexia du bertze zortzimilakoan aldean, izan ere, Himalayaren erdiko katetik aparte eta oso-osorik Tibeteko lurretan aurkitzen da.

50. eta 60. hamarkadetan, bertze zortzimilako gailurretara ailegatzeko hasi zirenean, Txinako gobernuak Tibetean sartzea debekatua zien atzeritarrei. Horren ondorioz, Shisha Pangmako tontorra ez zen zanpatu, txinatar espedizio erraldoi batek 10 mendizale punturik altuenean jartzea lortu zuen arte.

80. hamarkadan Tibeteko atekak atzeritarrentzat ireki zituztenean, Shisha Pangma esploratu gabeko eremu tentagarri bihurtu zen. Mundu osoko alpinistak hasi ziren hurbiltzen. Batzuk, mendi honen igoerak tentatzen zituen, baina bertze zenbaitek interes komertzialek bulkatuta soilik goitu zuten mendia. Hauek Shisha Pangmaren erdiko tontorrean—gailurra baino 19 metro beheitiago—gelditzen ziren. Orduztik, 6 bide desberdin zabaldu dira. Scott, Macinyre eta Roger Baxter Jones izan ziren mendebaldeko lehen mendizaleak Shisha Pangman, 1983. urtean.

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### INAUTERIAK

#### ITUREN-ZUBIETA

► **Ilbeltzaren 25etik 30era** Egun handiak, astelehen eta asteartea.

#### SUNBILLA

► **Ilbeltzaren 26tik 28ra** Egun handia, igandea. Karroz desfilea 11,30etan.

#### LEITZA

► **Ilbeltzaren 27tik 30era** Egun handia.

#### BAZTAN

##### ► Otsailaren 3an

Hartzaren iratzartzea, arratsaldean Basaburuan barna, Hartza, Hartza-zain, Jantzilo eta moztaroen agerraldia.

Ondotik afora Anizko elkartearen eta moztaroen gaupasa.

##### ► Otsailaren 10ean

Gizakunde. Arizkongo elkartearen moztaroen afora, gauerdian puske biltzea eta mamuru uxatzea. Arizkundik Erratzura bide zaharretik.

### MUS TXAPELKETAK

#### SARA

##### ► Mus txapelketak

Otsailaren 3an arratsaldeko 3etan Omordian. Ilbeltzaren 27a baino lehen eman behar da izena. Izarra Rugby Taldeak antolatua.

Herriko Etxeko Mus Txapelketa otsailaren 9an, izen-emateko otsailaren 3a arte.

### ZINEA

#### BERA

##### ► Otsailaren 10ean

"Zubi Gizakiak" Goaz Antzerki Taldearen eskuetik. 20etan Kultur Etxean.

### TELEBISTAKO TXOKOA



## Inauteriak etxean bertan

Gain-gainean ditugu Malerreka aldeko inauteriak. Gaur bertan hasiko dituzte ospakizunak Iturenen, sunbildarrek berriz ortziraletan, eta asteburu guzian bat bertzearen gibeletik izanen dira ekitaldiak. Sunbillan igandean biltzen da jende parrasta bat karrozak ikusi eta goiza giro ederrean pasatzeko. Ituren eta Zubietan, berriz, heldu den asteko astelehen eta asteartea izaten dira egun handiak, komunikabide nahiz jendearen artean oraindik ezagunagoak direnak. Ttipi-ttapa telebistan ere izanen duzue aukera hango karroza eta moztarrik ikusgarrienak ikusi eta egun hauetan protagonista nagusi bihurtzen diren herriarren xelebrekeriak aditzeko.

#### URTARRILAK 29

• Sunbillako eta Iturengo inauteriak, 21:00etan.

#### URTARRILAK 30

• Zubietako inauteriak, 21:00etan.



### BASERRIA



#### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilo): 8.900 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 200 pta/k.
- **Zerramak**: 130-135 pta./kiloa, bizirik.



#### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak** 200/250 k.
- **Idixkoak/Urruxak**: Pta/kg. Kanala Extra . . . . . 555-565
- 1.koa . . . . . 515-525
- 2.koa . . . . . 465-475

- **Aretze gizenak** 320 kilotik goiti
- **Idixkoak/Urruxak**: Pta/kg. Kanala Extra . . . . . 440-455
- 1.koa . . . . . 380-390
- 2.koa . . . . . 345-355

#### • Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

**Nabarrak**: urruxak 23.000-26.000 eta idixkoak 30.000-34.000 Pta.

**Mestizoak**: urruxak 37.000-39.000 eta idixkoak 47.000-57.000 Pta.

#### Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 360 Pta./Kg. Kanala. Behi gorri ona: 420-450 Pta./Kg. Kanala.

#### Bildotsak:

6-8 kilokoa . . . . . 850-900  
8-10 kilokoa . . . . . 700-750

DATUAK: NAFARROAKO GOBERNUA

### DISKAK



«Urtu dira hormak»

ZIOREK

Bere lehen lana karrikatatu du Arantzako Zioren taldeak, berderatzi kanta biltzen dituen CD txukunean. Idoia eta Amaiak jarri dute ahotsa, Raulek danborrak eta ahotsa, Ion Koldok gitarrak eta Jabik bajuak. Maiketik bete du teknikari eta ekoizle lana. CDaren alde grafikoak nor egin duen bilatzeko ere ez da urrunera joan behar, Bego Lizardi arantzarrak egin baititu argazkiak eta Eloi lesa-

karrak, diseinua. Xorroxin Irratiak ere bere babesa eskaini du. Orain arte Zioren taldeak inguruko ostatueta eskainiak zituen kontzertu batzuk. CDan sentimenduz eta doinu ezberdinez betetako kantuak bildu dituzte, eremu hori zabaltzeko nahian. Harremanetan jartzeko 655 706363 eta 606 260659 telefonoetara deitu edo helbide elektronikoa idatzi: zioren@yahoo.es

# Pezeten eta liberen azken urtea

**Urtebete eskas falta da euroa behin-betiko ezartzeko. Lehenbizian bederen buruhauste dexente izanen dugu diru berriarekin usatu arte, dudarik ez egin. Aldaketa hori horren bortitza izan ez dadin, hona hemen argibide batzuk euroak sortzen ahal dizkigun zalantzak argitzeko.**

### Zer da konbertsio-tasa?

Kopuru finko bat da, moneta baten balioa bertze moneta batetan adieratzeko erabiltzen dena. Euroak eta Europako Batasuneko herrialdeetako moneta guzietan 1999ko urtarrilaren 1etik konbertsio-tasa zehatza dute. Horrela, Espainiako konbertsio-tasa euroko 166,386 pezetatan finkatu da definitiboki.

### Nola adierazten dira konbertsio-tasak?

Dena den, ezin da nahastu konbertsio-tasa euroa adierazteko erabiltzen den moduarekin. Izan ere, konbertsio-tasa 6 hamartarrekin adierazten da bainan tasa hori aplikatzen



Erresuma batuan, Suedian eta Danimarkan ezinen da Euroa erabili.

tu ondotik gelditzen den kopurua 2 hamartarrekin adierazi behar da. Borobiltzearen araua erabili behar da, beraz.

### Nola egiten da diruaren aldaketa?

Pezetak eurotara aldatzeko 166,386rekin zatitu behar da, eta emaitzari borobiltze

erregela aplikatzen zaio; hau da, hirugarren hamartarra 5 edo handiagoa bada borobiltzea goiti egingen da, eta ttikiagoa baldin bada, berriz, beheiti. Euroak pezetetara pasatzeko, ordea, 166,386rekin biderkatzen da, kontutan hartuz azken emaitzak zenbaki oso bat izan behar duela, pezetak ez baitu hamartarik.

### Non erabiltzen ahal da?

Europako Batasuna osatzen duten 15 herrialdeetatik 12tan, Danimarka, Erresuma Batua eta Suedian izan ezik.



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KONTZERTUAK

### ELIZONDO

#### ► Urtarrilaren 26an

Los Padrinos, Kasino ostatuan.

#### ► Otsailaren 2an

Los Perezosos, Kasino ostatuan.

## BILKURA

### LESAKA

#### ► Ilbeltzaren 24a

Ofizialtasunaren aldeko kultur zikloari buruz. Antolatzailea bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Oinarririk. Arratsaldeko 7-etan Matxinbeltzanean.

## MINTZALDIAK

### SARA

#### ► Otsailaren 3an

Ihateriei buruzko mintzaldi interesgarria antolatu du Gaztetxeak. Etnologian eta folklorea aditua den Thierry Truffaut ikerlaria Euskal Herria eta, bereziki, Sarako ihaterietaz ariko da.

## GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfno. deitu behar da

#### ► Urtarrilaren 22tik

**28ra** Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizqueta.

#### ► Urtarrilaren 29tik otsailaren 4ra

Etxalar, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizqueta.

#### ► Otsailaren 5etik

**11ra** Arantza, Narbarte, Irurita eta Goizqueta.

## Liburuak



«Gutziak»

29 euskal idazle  
TXALAPARTA

Liburu honetan agertzen diren 29 euskal idazleek, Emakume Idazleen Lantaldea osatzen dute. 29 ipuin eskaintzen dizkigute, 29 gutizia. Jakina, guttiz ezberdinak dira ipuin guztiak, bai estiloz, bai mamiz. Duela bi urte Arizkungo baserri batean egingo bileran sortu omen zen ideia. Aurelia Arkotxa, Ainhoa Arozena, Aintzane Arrieta, Yolanda Arrieta, Begoña Bilbao, Itxaro Borda, Arrate Egaña, Idoia

Etxeberría, Amaia Elozegi, Enkarni Genua, Aitzpea Goenaga, Maite Gonzalez Esnal, Lierni Ibargutxi, Arantxa Iturbe, Pili Kartzada, Mariasun Landa, Goizalde Landabaso, Amaia Lasa, Miren Agur Meabe, Amaia Mendoza, Laura Mintegi, Esther Mugertza, Lourdes Oñederra, Jasone Osoro, Ixiar Rozas, Maribi Unamuno, Lourdes Unzueta, Edurne Urkiola eta Ana Urkizak beraien lanttoa egin dute libururako.

# MERKATU TTIKIA

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. **ttipi-ttapa** telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapa** igorri faxez edo postaz.

## ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

Hegoaldetik deitzeko  
Iparraldetik 00-34-

# 948631188



**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzu berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak

- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak

- 208. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

## MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

## ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

## DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

- 801. Agurrak

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

## BULDAIN

Leitzan pisuak salgai.  
Iruñeko Alde Zaharrean  
taberna salgai. Prezio ona.

☎ 649 476 615  
☎ 948 510 534 bulegoa  
(Orduetgia: Goizeko 9etatik 14,30etara)

**BERA.** Pisu salgai. ☎ 948 630 943.

**LEITZA.** Pisu salgai, haritzeko sukaldea, jangela montatua, kortinak, lanparak eta kalefakzioa. 13 milioi pezeta. ☎ 948 510 169.

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

## ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841  
607 978 656

**IRUÑEA.** Pisu errentan emateko Errotxapean. Ongi kokatua. ☎ 948 630 217.

## ETXEBIZITZAK

### 105 ETXE KONPARTITUAK

**Pertsona bat** behar da Iruñean pisua osatzeko. ☎ 636 508 326.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

**LESAKA.** Garajea salgai Albistur 39an. ☎ 948 637 786.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**BERA.** Bajera errentan emateko Legia karrikan. ☎ 948 630 217.

**SARA.** 800 m<sup>2</sup>ko gordeleku errentan emateko. Nahi diren m<sup>2</sup>ak alokatzen ahal dira, 400 pta/16 lib. m<sup>2</sup>a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

**BERA.** Lokala errentan emateko Iturlandeta 6.ean. ☎ 948 631 375 edo 948 630 240.

**BERA.** Arraindegia traspasatzen da. Ekonomikoa. ☎ 629 486 305.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

## ARANTZA ZYRGINDEGIA

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako  
zurgin lanak

Osiña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

## ZERBITZUAK

### 207 GARRAIOAK

**Garraioak eta banaketak** egiten dira enpresa zein partikularretara. Eguneroko 24 orduetan. ☎ 609 477277.

## LANA

### 301 ESKAINTZAK

## LAN ESKAINTZA

ELIZONDOKO BULEGO BATEAN ADMINISTRARIA BEHAR DA

- Autoa izatea beharrezkoa.
- Ordenagailua ibiltzen jakitea baloratuko da.
- Behin-behineko kontratua eskaintzen da, finkora pasatzeko aukerarekin.

ARGIBIDE GEHIAGO:

☎ 607 978 656

**Pertsona bat** behar da barran eta jangelan lan egiteko. ☎ 666 079 141.

Ibardin **langileak** behar dira. Mutilak almagazean aritzeko eta neskek jate-txerako. ☎ 948 631 394.

Malerrekan **familia langileak** behar dira aldi baterako. Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertu da oposizio-lehiaketarako deialdia, 2000ko abenduaren 29an. 2001eko urtarilaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak Malerrekako Mankomunitateko bulegoan (Merkatarien kalea, 17, behea, Doneztebe). ☎ 948 451 746.

**Langileak** behar dira Zugarramurdiko Halty jatetxean. Mutil edo neska. ☎ 948 599 110 edo (00 33) 559 54 24 84.

Ileapaindegirako **laguntzailea** behar da asteburuetan. Interesatuak argazki bat eta datu pertsonalak bidali Berako 50 posta kutxa zenbakira.

egin zaitez harpidedun

URTE OSOKO TARIFA (BEZ barne):  
Hego Euzaldea 47.500 • Ipur Euzaldea 39.000 • Espainia 47.500 • Europa 39.000 • Amerika-Afrika 145.000

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ NAN: \_\_\_\_\_ Titulua: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_ Posta Kodea: \_\_\_\_\_ Herra: \_\_\_\_\_ Herrialdea: \_\_\_\_\_

Ordainketa mota: Bankua  Titulu  Transferentzia  Giro postala

(Banku bidez ordaintzekoak betetzeko) Banku edo sarraski kutxa

Erabilera:  Sukertatza  K.O.  Kontu zerbitzu

Titularrak: \_\_\_\_\_ Titulu: \_\_\_\_\_ Helbidea: \_\_\_\_\_

Harpidetza-ordria berriz eta bidali helbide honetara: Baigorri Argitaletxea, S.A. • Portuetxe, 23 - 2.A • 20018 Donostia (Gipuzkoa)



## LANA

### 302 ESKARIAK

**Ordenagailuak** konponzen dira. Etxean bildu eta entregatzen dira. ☎ 948 630 288 edo 617 635 943.

**Ostato batean** edo almatzenez lan eginen nuke. ☎ 948 631 602.

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Seat Toledo GLX 1.8** i salgai. ☎ 948 630 326.

**Ford Fiesta XR2 1.8** salgai. 130 zaldi eta 16 V. Egoera onean, estrak. Prezio negoziagarria. ☎ 659 612 623 (Bera).

**Golf GTI** salgai. NA-AW. Azken modeloa, Turbo 20 V, 160 zaldi. 2 urte. 70.000 km. Berri-berria. ☎ 948 630 807.

**Volkswagen Jeta** salgai. NA-W. ☎ 676 160 821.

**Renault Clio 1.2** salgai. 46.000 km eta 3 urte. NA-AV. ☎ 617 567 047.

**Fiat Bravo 16 V**, NA-AU eta **Opel Calibra 16 V**, NA-AF salgai. ☎ 948 450 040.

**Suzuki GSX 600 F** motoa salgai, aukera bikaina. ☎ 626 809 190.

Karrerako **scooter**-a salgai, 25 zaldikoa, egoera onean. Prezioaz hitzeginen dugu. ☎ 639 934 770.

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK

#### MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

#### Bigarren eskuko kotxeak:

Nissan GR, Samurai 10.000 km,  
Ford Orion egoera onean,  
Terrano II 3 eta 5 atekoak.  
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

**GANIX**  
Tailerrak  
Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA  
IBILGAILUEN MEKANIKA  
ETA ELEKTRIZITATEA  
FIAT Zerbitzua

**BOAN TAILERRA**  
CITROEN Banatzailea  
AUTO BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
☎ 948 63 06 23 • BERA

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

Hiru urteko **zaldia** salgai. ☎ 948 450 159.

**Ardiak** salgai. ☎ 948 635 019 edo 639 670 231.

**Bi ahari** mutur grisak salgai, 2 urtekoak. ☎ 948 451 696 (gaueko 9etatik goiti).

## DENETARIK

### 701 GALDU-AURKITUAK

**Urrezko katea** eta **domina**, txinatar inskripzio batekin, galdu dira abenduaren 26an Beran. ☎ 948 630 021.

Abenduaren 10ean Donez-  
tebeko Bear-Zana frontoi-  
an poltsa bat galdu nuen  
**hortzetako protektore ur-**  
**dina** eta pantaloneta urdi-  
na barnean zituela. ☎ 948  
450 204.

Indo **betaurreko gradua-**  
**tuak** aurkitu dira Toki Ona  
institutoko parkean. ☎ 948  
625 000.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Gerezi-plantak** salgai. ☎  
639 075 588.

**Banabar habiak** (ilar-ma-  
kilak) salgai, ezpelezkoak.  
☎ 948 580 228 (Elizondon).

2000 litroko poliesterezko  
**3 depositu** salgai, beren  
grifoekin, ardoa gordetze-  
ko aproposak. ☎ 948 453  
007 (goizeko 8etatik 10eta-  
ra).

## LODITASUNA

EDAN ETA ARINDU!

Zure pisua kontrolatua  
gustoko janak baztertu gabe

☎ 948 13 11 36

**BERAko UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE BERA

**ZALAIN AUZOKO PARKEA ETA  
PILOTALEKUA  
ERAIKITZEKO LANAK**

- **Kontratuaren xedea:** Zalainen parkea eta pilotalekua eraikitzeke obrak.
- **Esleipen modua:** Pentsan iragarritako prozedura negoziatua.
- **Kontrata aurrekontua:** 8.600.324 Pta. / 51.688,99 euro (BEZ barne).
- **Proposamenak aurkeztea:** Iragarki hau egunkarietan argitara eman eta ondoko 15. egun naturala arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luzatuko da.
- **Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 5. egunean. Egun hau larunbata suertatzen bada, hurrengo astelehenean irekiko dira. Ordua: 14:30. Proiektua, baldintza tekniko eta klausula administratiboen plegua eta gainerako baldintzak interesatuen eskura Udal bulegoetan izanen dira.

Bera, 2001.01.15  
ALKATEA, Josu Goia Etxeberria

# 2001eko telefono gida prestatzen ari gara

Zure datuak  
zuzentzeko edo  
publizitatea  
kontratatzeko,  
deitu **948 63 11 88**  
telefonora





# URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.

## OHARRA:

Argazki bakoitzarekin batera 40 Ptako 13 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira TTPI-TTAPA TELEBISTAN eta aldizkarian agertuko. Argazkia itzultzeko sobre bat eta helbidea ere bidali.



**Mainer Fagoaga Eugi** beratarrek 4 urte bete ditu urtarrilaren 15ean. Aunitz urtez bere familia guziaren partetik.



**Uxue Zelaieta Danboriena** beratarrek urtarrilaren 17an bete ditu 3 urte. Zorionak amaxi, atta, ama eta Jonen partetik.



**Ander Bergara Siles** beratarrek 11 urte bete ditu urtarrilaren 15ean. Zorionak familia guziaren partetik.



**Guillermo Remesar Fernandez** aranztarrak 9 urte bete ditu urtarrilaren 18an. Zorionak aita, ama eta Beñaten partetik.



**Javier Pikabea Molinero** eta **Juanma Molinero** beratarrek urtarrilaren 29an 6 eta 30 urte beteko dituzte. Zorionak familia guziaren partetik.



**Irati Arbelaitz Iguzkiagirre** igantziarrak 5 urte bete ditu urtarrilaren 18an. Zorionak eta muxu handi bat denon partetik.



**Haizea Iri-goien Urtxegi** lesakarrak 8 urte beteko ditu urtarrilaren 31n. Zorionak familia guziaren partetik eta muxu handi bat.



**Uxue Zelaieta Danboriena** beratarrek 3 urte bete ditu urtarrilaren 17an. Zorionak Igantziko familiaren partetik.



**Yago Cantero Perez** beratarrek urtea beteko du urtarrilaren 26an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



**Laura Campos** beratarrek 24 urte beteko ditu urtarrilaren 29an. Goiti goazi, eh? Txanpainarekin ospatuko dugu, argazkian bezala.



**Leire Matxiëna Altzugarai** urroztarrak 5 urte bete ditu urtarrilaren 19an. Zorionak Maddi, Uxue, M<sup>a</sup> Jose eta muxu bat familiaren partetik.



**Mikel Aldazabal Zamarreño** beratarrek 6 urte beteko ditu urtarrilaren 28an. Zorionak Iñigo, Naiara, gurasoen eta amaioaren partetik.



**Julen Ariztia** eta **Leticia Jorajuria** dantxarinearrek 10 urte beteko dituzte urtarrilaren 24an. Zorionak familiaren partetik.



**Inaxio Larretxea** aranztarrak urteak beteko ditu urtarrilaren 23an. Zorionak familiaren partetik, berexiki Iñakiren partetik.



**Xabier Taberna Larretxea** aranztarrak 3 urte beteko ditu urtarrilaren 22an. Zorionak pottoko, atta, ama, Andoni eta familiaren partetik.



**Lourdes Mitxelena Txoperena** lesakarrak 25 urte beteko ditu urtarrilaren 28an. Zorionak *ballazo*, txanpaina espero dinagu. Kuadrila.



**Juan Mari Lopez** oiartzuarrak 29 urte bete ditu urtarrilaren 15ean. Zorionak *txuletero*, kontuz kiloekin. Ja, ja, ja. Maddalen, Ederne eta familia.



**Naiara** donamariarrak urtarrilaren 20an beteko ditu 6 urte. Mairuk, lehengusak, 9 urte bete berriak ditu. Familiakoen partetik, mila muxu bie.



**Aritz Lezea Grajirena** leitzarrak 8 urte beteko ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu zure atta eta amaren partetik.



**Mainer Olaziregi Urkiola** beratarrek 5 urte beteko ditu otsailaren 9an. Zorionak etxekoen, Kuka eta Evaren partetik.



**Tere Bereau Mazizior** eta **Andoni Rodriguez Bereau** urtarriaren 24an bete dituzte 32 eta 4 urte. Zorionak familiaren partetik.




**Martin Ziriza** zigatarrak 2 urte beteko ditu urtarrilaren 29an. Zorionak etxekoen partetik.



**Aizea Petrirena** Rozas beratarrek 3 urte beteko ditu urtarrilaren 29an. Zorionak eta muxu handi bat.



**Aupa Ixabelita!** Otsailaren Sean 85 urte beteko dituzu eta 20 urtetan bezain gazte. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



**Javier Apeztegia** doneztebarrak 5 urte beteko ditu otsailaren 2an. Zorionak eta muxu handi bat Naiara, atta, ama eta amaxiren partetik.



**Joseba Bidaurre** beratarrek 4 urte bete ditu urtarrilaren 21ean. Muxu handi bat atta eta amaren partetik.



**Anek** otsailaren 3an urtea beteko du. Zorionak familia guziaren partetik.



**Jesus Iraola Bertiz** beratarrek urteak beteko ditu urtarrilaren 28an. Zorionak arrebaren, anaien eta iloben partetik.



**Txomin Sappupo Alegría** doneztebarrak 14 urte beteko ditu otsailaren 1ean. Zorionak amaxi eta osaben partetik.



**Aritz Mentaberri Bergara** zugarramurdiarrak 3 urte beteko ditu urtarrilaren 31n. Zorionak amaxi, ataxi eta Kaxkurrioren partetik.



**Aritz Mentaberri Bergara** zugarramurdiarrak 3 urte beteko ditu urtarrilaren 31n. Zorionak aita, ama eta bere anaia Josuren partetik.



**Joseba Aleman Irigoien** amaiurtarrak 15 urte beteko ditu otsailaren 15ean. Zorionak familia guziaren partetik.



**Maialen** eta **Aitziber Telletxea Zubieta** oiartzuarrak eta **Alaitz Bengoetxea** irundarrak 6, 2 eta urte bat beteko dituzte otsailaren 12, 11 eta 16an. Zorionak familiaren partetik. Muxu asko.



Malagako **Augusto Pardalek** otsailaren 17an urteak beteko ditu. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



**Concha Perez** lesakarrak otsailaren 5ean beteko ditu urteak. Zorionak iloben partetik.



# KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak

euskara

ikasi



## OTSAILEKO MATRIKULAZIOA

- Maila guztiak eta EGA
- Ordu-tegiak aukeran

### IZENA EMATEKO:

- Bortzirietako Euskaltegia  
**948 637 796**
- Malerrekako Euskaltegia  
**948 451 555**
- Leitzaldeko Euskaltegia  
**948 610 776**

Deitu otsailaren 9a  
baino lehen!

marina

## Iñauterietako zure dendak

- HELDUENDAKO MOZORRO ALOKAIKUA
- Heldu eta haurrendako neurrira egindako mozerroak
- Osagarriak: pelukak, txanoak...
- Iñauterietako gisa guzietako oihalak



Colon Ibilbidea, 1 • **IRUN** • Tfnoa: 943 622 210

# SASOI

ESKABAZIO ETA GARRAIOAK



- LUR MUGITZEAK
- LUR ZANPATZEAK
- URBANIZAZIOAK
- LUR BERDINKETAK
- KANALIZAZIOAK
- GARRAIOAK



Tel.: 948 45 15 96

Sakelekoa: 667 42 46 35

Leku-Eder, 4 - 1.D  
31791 SUNBILLA  
(Nafarroa)